



Gau hartatik, bost urte

Altsasuko auziari errepasoa Iñaki Abad Olearekin / 2-4



Sakanako Bizikleta Eguna izanen da igandean / 17

Eskolaz kanpoko jardueraz bete dira astegun arratsaldeak Iturmendin / 6

Lizarragan zuntz optikoko sarea jarri dute. Hura edo Sisnet erabil dezakete orain / 7

Altsasun azoka eta makina bat ekitaldi gehiago prestatu dituzte asteburu honetarako / 14

Bihar Onddo Lasterketa jokatuko da Altsasun eta parte hartze handia espero da / 16

Pumoriko mendi istripua gertatu zela 20 urte beteko dira igandean; familiekin bildu gara / 18-19

Zinemaren munduan lanean dabil Aritz Leoz Crespo; tartean 'Maixabel' filman aritu da / 23



Iñaki Abad Olea altsasuarrak erabateko askatasuna lortu zuen hilaren hasieran.

"Beti txarrenera jo dugu"

IÑAKI ABAD OLEA ALTSASUKO AUZIAGATIK ZIGORTUTAKOA

Bi urte hirugarren graduan pasa ondoren, urriaren 4an erabateko askatasuna lortu zuen. Bost urte pasa dira Altsasuko auzia bezala ezagutzen denaren gertakariak izan zirela

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Iñaki Abadek sare sozialetan atzera kontua egin zuen: 100 egun, 99 egun, 98... eta urriaren 4an 0 zenbakira iritsi zen. Erabateko askatasuna berreskuratuko zuen eguna zen. Zaballako kartzelan azken bi urtetan eraman duen eskumuturra eta etxeko tresna utzi ondoren, modu xumean ospatu zuen egun berezia altsasuarrak. Oporrak prestatzen ari da dagoeneko. Ingurukoak bera baino emozionatuago zeudela aitortu du. Gaur, urriak 15, bost urte betetzen dira Altsasu Auziko gertaerak izan zirela. Urteu-

rena bada ere, efemeridea ia ahaztuta zuen Abadek. Lehenengo urteurrena gogorrena izan zela azaldu du.

Lehenengo egunak erabateko askatasunean. Zer moduz?

Egia esan, sinbolikoagoa izan da beste zerbait baino. Gurasoek, beste auzipetuek edo lankideek gehiago bizi izan dute. Bezeroak tabernara etortzen ziren eta zoriontzen ninduten, eta arraroa da. Bitxia. Whatsapp erori izan zen egun horretan izan zen, baina goizean mezu pila bat iritsi zitzaizkidan eta zerbait arraroa gertatu zela pentsatu nuen. Zorion mezuak ziren. Nik ez dut asko nabaritu aldaketa, baina egia da badagoela. Gauean ez duzu erloju-a begiratzen egon beharrik, oporrak prestatzen ari naiz... Ez diot garrantzi handirik ematen, baina nabaritzen da.

Ospatu zenuen?

Egun horretan bertan, Zaballan dena utzi ondoren, bi lankiderekin Gasteizera bazkaltzera joan ginen. Siesta egiteko denborarik ez nuen izan, eta inoiz egin nuen gauza bat egin nuen: hedabideei erantzun. Neurrian. Asko ezin izan nituen hartu, estutasun handia izan zelako. Arratsaldean askaria egin genuen.

BOST URTE ATZERA

Nola gogoratzen duzu gau hura?

Bost urte pasa direnez, egia da ez dudala asko pentsatzen. Baina gogoratzen dut hurrengo urtean oso gaizki pasa nuela. Ferien aurreko egunak ziren, pilota partiduak ere egon ziren, eta etengabe gogoratzen nintzen. Tabernan lanean nengoan, garbitzen, eta dena gogoratzen nuen. Aurten, nik uste ez dudala hain presente izango. Gero, agian, bai. Burua horrelakoa delako. Baina askoz okerrago pasatu nuen hurrengo urtean, baldintzapean nengoela. Irudi gehiago zetozkidan burura.

Ez diozu garrantzirik ematen edo buruak oroitzapenak blokeatu nahi ditu?

Ez diot garrantzirik ematen. Pentsatzen jartzen banaiz, normalean gogoratzen naiz hedabi-



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



deek galdetzen didatenean, orduan haritik tiratzen hasten naiz, eta dena gogoratzen hasten naiz. Bestela, egunerokotasunean, ez. **Koxkaren aurrean zerbait gertatzen ari zen. Zer pentsatu zenuen une horretan?**

Logikoa ez zen edo normaltasunetik kanpo zegoen zerbait ikusten nuen. Hor erabaki nuen telefonoa ateratzea eta grabatzen hastea. Atxilotu bat zegoela jakin nuen, eta atxilotua bi parranda tabernen artean zuten. Nire usuez, hori nolabait probokatzea zen. Foruzaingoaren komisaria dago eta herria handigoa da; atxilotua komisariara eramaten baduzu, parrandak jarraituko luke, baina atxilotua Koxka eta Biltoki artean baduzu, zerbait arraroa gertatzen dela pentsatzen duzu. Jendea parrandan zegoen. Denok dakigu nolakoa zen Koxkako atea pandemiaren aurretik, baina atentzia deitu zidan atxilotu bat zegoela Foruzaingoaren kotxean, kotxea ez zen mugitzen, eta foruzainak kanpoan zeuden.

Urte hauetan noizbait pentsatu duzu, "hortik pasatu izan ez banintz..."

Pentsatzen dut egun horretan taberna lehenago itxi izan banu, lehenago iritsiko nintzela etxera. Bai, pentsatzen dut. Baina istorioa horrela gertatu zen. **Grabatzeagatik damutzen al zara?** Hurrengo egunetan, dagoeneko albistea mugitzen hasi zenean, lagun bati esan nion bideo bat grabatu nuela, eta esan zidan ea eroturik nengoen; Mordaza legearekin 3.000 euroko isuna jar ziezadaketela. Beldur handiena zen guardia zibila grabatzeagatik eta horregatik agian pixka bat larrituta nengoen. Baina isuna etortzen bazen, ordaindu eta listo. Aurrekoetan galdetu didate egoera berean egongo banintz telefonoa aterako nukeen, eta argi eta garbi esan dut baietz.

Horrelako gertaerak daudenean modu batean edo bestean dokumentatu behar dira; autoritate abusua eta horrelakoak.

Dokumentatuta gelditzeko.

Konstantzia utzi behar da. Gero, buruarekin jokatu behar da, eta ez zabaldu Whatsapp bidez. Besterik gabe, dokumentatuta gelditzea. Egunen batean guri gertatu zitzaigun bezala Auzitegi Nazionalera iritsi zela eta terrorismoagatik 50 urteko zigorra eskatzen zutelara, bideo bat dago esaten duena gizon hori gezurretan ari dela. Nik ordaindu dut bideoan ikusten den alkandora

daraman sargentoagatik, eta nahiko argi gelditzen da grabatzeagatik izan dela. Animatzen dut, posible bada, grabatzera. Badira legalki hainbat gauza ez ditudan asko kontrolatzen, baina esan zidaten nire bideoa leku batetik bestera mugitzen egongo balitz, egiatasuna galduko zuela. Eta hori hasiera batean ez zutela proba bezala onartu nahi izan.

Nolakoak izan ziren hurrengo egunak? Hasiera batean ez nuen uste eragingo zidanik. Bi auzipetujoaten ziren Iruñera sinatzera, eta nik kanpotik bizi nuen. Hedabide asko ikusten ziren, udal batzar bat egon zen eta udaletxearen lorategiak kazetariz beteta egon ziren. Hortik pasa nintzen eta "ai ama, nola ari den hau hazten" pentsatu nuen. Lehenengo astean, behintzat, ez nuen niri gertatuko zitzaidalda pentsatzen. Are gehiago, "gazte gaixoak gainean eroriko zaiena!" pentsatzen nuen.

Eta, bat-batean, inplikatzeko zaituzte. Zer pentsatu zenuen?

Ez dakit zer momentutan zehazki izan zen. Urdiaingo igerilekuetako inguruetan nenbilen lagun batekin gaztainak hartzen eta abisatu ninduten nire izena diligentzietan zegoela. Zergatik oso ongi jakin gabe nire izena hor zegoen. NA eskatu zidaten. Momentu horretan ez nekien nola zihoazen gauza horiek; orain, bai. Ez dut gogoratzen menditik oso larrituta jaitsi nintzenik. Gurasoekin hitz egin nuen, izango dena izango da pentsatu... Baina zetorren guztia pentsatu gabe. Hasieran Jokin eta Garin izan ziren. Hilabetean lehenengo atxiloketa izan zen, eta aste bat lehenago jakin ziren izen guztiak. Iruñeko abokatuak izan ziren abisatu gintuztenak. Orduan, aholkatu ziguten hoberena Iruñera joatea zela eta deklaratzeko

"KARTZELAN ETA HIRUGARREN GRADUAN ETAPA DESBERDINAK EGON DIRA"

"ATXILOKETARAKO PRESTATUTA GEUNDEN, BAINA ALDI BEREAN EZ"

aurretiko jarrera erakustea zela. Orduan, kompetentziak Auzitegi Nazionalera bidali zituzten. Egun horietan elkartu ginen denak. Momentu horretan abokatuak esan zigun agian iristean gure zain egongo zirela eta atxilotuko gintuztela. Pentsatu genuen: "Nola?". Epaitegira iritsi ginen eta ez zegoen inor. Ez ziguten harrera ere egin. Baina sinatu genuen borondatez joan ginela. Ez zuen ezertarako balio, baina joan ginen.

Dena oso azkar joan zen.

Hilabete bat izan zen. Urrunetik ikusita oso azkar joan zela dirudi. Egia esan, ez zitzaigun oso luze egin, oraindik ez zuelako gerora hartu zuen dimentsio guztia hartu. Orduan, lanean jarraitu nuen, abokatuarekin hitz egingera joaten ginen... Orain ikusita oso azkar pasa zela dirudi, eta bai. Jakin gabe zer etorriko zen ez genion garrantzi handirik eman. Abokatuak esan zigun bertan egon zitekeela itxoiten atxilotzeko. Ez zutela uste, baina Auzitegi Nazionallean hartzen bazuten beste abokatu batzuk izan behar zutela. Esan ziguten hobe zela guardia zibilarik ez esatea eta bakarrik epailearen aurrean hitz egin behar genuela. Pixkanaka, nahi gabe, zure burua prestatzen hasten da. Ordura arte inork ez dizkizu gauza horiek azaldu. Ez da berdina egun batean guardia zibila etxera joan eta ateari kolpe bat ematea. Sustoa askoz handiagoa da.

ATXILOKETA

Azaroaren 14an lehenengo atxiloketa izan zen. Nola bizi izan zenuen?

Prestatuta geunden, baina ez. Lehenengo aldia askoz diskretuagoa izan zen. Herria guardia zibilez bete zegoen ere, baina diskretuagoa izan zen. 8:30ak inguru ziren eta amak deitu zidan kezkatuta, esanez guardia zibila etxera joan zela eta nire aitarekin nire etxerantz zetozela. Nire aitak ez zekien non bizi nintzen, duela gutxi etxetz aldatu nintzelako. Beste txirrin bat jotzen aritu ziren, eta uste zuten gezurretan ari zela. Etxera iritsi ziren, eta ez zuten epai baimenik. Berez, ezin dira etxean sartu, baina nik momentu horretan ez nekien. Hiru guardia igo ziren, eta behintzat aitaren aurrean lasaitasun irudia eman nahi zuten. Esaten zuten arratsalderako kanpoan egongo nintzela, badaezpada telefonoa hartzeko, bestela Ma-

drilen askatzen baninduten ea zer egingo nuen han telefonorik gabe. Telefonoa oraindik Madrilen dago, noizbait joan beharko naiz. Hotza egiten zuela eta txaketa hartzeko ere esan zidaten. Guardia zibilak kaleko jantziz jantzita zeuden, kalean ere pertsona bat zebilen buru-berokiarekin... Nabaritzen zen zerbait gertatzen zela. Kalean aitari besarkada bat eman, eta kotxe batean igo ninduten, kotxe normal batean. Bertan eskuburdinak jarri zizkidaten. Aitak ez zuen hori ikusi, eta Madrileruntz joan ginen. Harrigarriki jatorrak zeuden. Janaria eskaintzen zidaten, ondokoak esaten zidan ea eroso nindoan gerrikoarekin... Ni isilik joan nintzen. Argazki batzuk egiten harrapatu nuen. Irratian albistea agertu zen, eta bolumena igo zuten nik entzun nezan, tabernan egon zirela jakitera ematen zuten...

Lehenengo aldi horretan hilabete egon zinen espetsuean. Ateratzeko itxaropena zenuen?

Orain gehiago ezagutzen dut, baina garai horretan ez genekien ezer prozedura hauei buruz. Ez genekien instrukzio fasea zer zen. Momentu horretan terrorismo lesioengatik 10 eta 15 urteko espetxe zigorra eskatzen zuten. Lamela zen instrukzio epaile. Ateratzeko itxaropena? Beti txarrenera jo dugu. Baina egia da, nahiz eta, uste txarretara egiten joaten zaren, ez du esan nahi egina zaudela. Ez duzu pentsatzen. Oso ohikoa da pentsatzea kartzelatik bihar edo etzi aterako zarela, eta horrek suntsitzen zaitu. Burua txikitzen dizu. 10 eta 15 urte bitarte eskatzen zizkiguten, bertan denboraldi bat egongo ginen, baina ez dakizu instrukzioa itxi behar dutela, fiskalaren eta akusazioaren eskaera egon behar dela, epaiketa, epaia... Gainera,

"LAGUN BATEK ESAN ZIDAN HOBE IKUSTEN NINDUELA KARTZELAN, BALDINTZAPEAN BAINO"

"GERTUKO HEDABIDEK EZER ESKATU GABE DENA EMAN DUZUE"

hilabete horretan gatazka modulu batean geunden, Oihan eta biok ziega berean geunden. Txarrene-ra egiten geunden. Batzuk atera ginenean nik uste nuen pixkanaka besteak ere aterako zirela. Atera nintzenean esan nion Oihani hilabete batean edo aterako zela. Ez zen horrela izan.

Kalean zeunden, baina berriz sartuko zirenen sentsazioarekin?

Denok ez dugu baldintzapeneko askatasuna berdin bizi. Baina nik egunero pentsatzen nuen berriz sartu behar nindutela. Espetxea baino pisutsuagoa egin zitzaidan baldintzapeneko. Gehien bat 50 urte eskatzen dizkizutenean. Askok pisatzen zuten. Kartzelan egotea okerragoa da, baina baldintzapean egotea ere oso txarra zen. Lagun batek esan zidan hobe ikusten ninduela kartzelan, deskantsatuta, kanpoan baino. Bitxia da, ulertzeko zaila, baina horrela izan da.

Pelikula batean sentitu zara?

Dudarik gabe. *Altsasu* liburuan esaten dut, eta egia da. Pelikula bat zirudielako sentsazioa nukan. Zertan ezagutzen ditugu kartzelak? Pelikuletatik. Sotora, 2:00etan iritsi, eta gizon lodi batek bazilatzen hartu gintuen. Hedabideetan atera zenez ezagutzen gintuen. Ziegak ere pelikuletan bezala... Urrunetik ikusten baduzu sekulakoa iruditzen zaizu. Leku aldaketan Burgosen gelditu ginen eta kartzela zaharra da. Gau baterako bitxia zen. Iruñekoa eta Zaballakoa berriagoak dira. Navalcarneron ere aste betez egon ginen eta kisketa handia zen eta 7:00etan zarata handiarekin irekitzen zuten, dutxak patioan zeuden...

EPAIKETA

Epaiketa iritsi zen. Zer espero zenuen?

Nik uste dut epaiketaren sentsazioak guztiak antzekoak izan ditugula. Uste dut Amaia Izkok esan zuela: epaiketa batzuk irabazten dira, baina epaiak galtzen dira. Kasu honetan, pasatzen zen egun bakoitzeko geroz eta alaiago bukatzen genuen; aurkezten genituen lekukoengatik, haien kontraesanengatik, ez zuten informazioirik ez zutelako ikertu... Irabazten joaten ginen. Aretoan barre batzuk ere bota genituen: pilota partiduen zatiak ikusi genituen, lekukoek esaten zutenarekin barre egin genuen, akusazioak esaten zutenarekin ere...

Epaia atera zen. 13 urteko espetxe zigorra. Kartzelara itzultzea argiago ikusten zenuen?

Ezta ere. Sorpresa pixka bat izan zen ere. Epaia ekainaren 1ean publikatu zuten, eta asteburu horretan lanean hasi nintzen. Astelehenean eta asteartean itxita zegoen eta manifestazioa egon zela uste dut. Abokatuarekin hitz egin genuen, eta gure artean komentatzen genuen terrorismoa ez zegoenez atxilotzeko aukera zegoenik ez zirudiela. Ez genekien ziur atxilotuko gintuzten edo ez. Baldintzapean egon ginenean astero bitan sinatzera joaten ginen eta hor erakusten zen aurretiko jarrera. 50 urteko zigor eskaerarekin ez baduzu ihes egin, orain 13 urtera zigortu zaituztela, ez du zentzurik ihes egitea. Plataformako norbaitek esaten zuen ez zuela hain argi ikusten ez gintuztela atxilotuko. Baina astelehen horretan herria guardia zibilez bete zen. Astelehenean bertan ikusten genuen.

Nola gogoratzen duzu ekainaren 5 hori?

Luzea izan zen astelehenetik, aurreko egunetik, izan zelako. Bagenekien zer zetorren. Nik behintzat banekien. Gurasoak aurretik agurtu nituen, eta lagun baten etxean pasa nuen gaua. Abokatuarekin hitz egiten saiatu nintzen, baina berandu zen. Goizean berarekin hitz egin nuen eta esan nion guardia zibilak ez zekiela non nongoen ez nengoelako etxean, eta ea zer egingo nuen, entregatu edo arratsaldean kotxea hartu eta Madrilerajoa. Entregatzeko esan zidan, bestela kontrolen batean gelditzen baninduten pentsa zekaketela ihes egiten ari nintzela. Eta horrela izan zen. Dirua eta nortasun agiria poltsikoan nituela, guardia zibilengana joan nintzen. GUAIXEK hartu zuen momentu hura. Bertan dago bideoa. Beste egun batean bista geneukan, epaiketa baino hotzagoa, areto bera zelako, baina jende gutxiagorekin, eta abokatuak bideoa erakutsi zuen esanez entregatzen ari nintzela eta birala egin zela; ez nuela ihes egin behar. Fiskaltzak ihes egiteko arriskuagatik espetxea eskatzen zuten, baina ikusten zen entregatu nintzela; besteak beste, lan kontratua ere bazegoen...

ESPETXEA

598 egun kartzelan. Nolakoan zen bizitza han? Edo nahiago duzu ez gogoratzea?



Iñaki Abad Olea atxilotu zuten tokian.

Egoeraren arabera izaten da. Esaterako, Jokinekin eta Aduurrekin pote batzuk hartzeko elkartzan bagara barre batzuk botatzen ditugu gauzak gogoratzen. Etxean, nahiago dut ez hitz egin. Kuadrillakoei eta lankideei ere anekdotak kontatzen dizkiet. Artista batzuk ezagutzen dituzu bertan, egoera desberdinak ezagutzen dituzu. Etapa desberdinak daude. Lehenengo hilabetean, Soto del Realen, Oihanekin ziegan nongoen gatazka moduluan. Beste etapa bat Madrilen bigarren atxilotetaren ondoren izan zen, ni bakarrik nongoela trantsizio moduluan. Lekuadaketa unerik zailenatarikoa izan zen. Beste etapa bat Iruñekoan izan zen, nahiko zaila, bizikidetzarako oso zaila delako. Beste fase bat Zaballakoa izan da. Denak elkarrekin geunden, modulu berean, eta gosaltzerakoan, bazkaltzerakoan eta afaltzerakoan elkarrekin egoten ginen. Fase desberdinak daude, lekuagatik eta elkarbizitzagatik. Gorenak zigorra 3,5 urtera jaitsi zidanean, erdia praktikoki eginga neukan eta hirugarren graduaren sailkatu zuten.

Kalean bai, baina ez aske. Nola eraman duzu hirugarren gradua?

Hirugarren graduaren barruan ere fase desberdinak egon dira. 2019ko abenduaren 20an atera ginen Aratz eta biok Zaballatik eta alarma egoerara arte, astelehenetik ostegunera, kartzelara

joaten ginen lo egitera. Ateratzen zara eta pentsatzen duzu berdin zaizula kartzelara lo egitera joatea, kanpoan zaudelako. Horretara ohitzen zara. Baina gero pisua hartzen hasten da. 00:00etan sartzen zara, funtzionarioa etorri arte eta ziegara sartu arte, 1:00ak, eta lo hartzen duzunerako 1:30ak. 6:15ean atea irekitzen zituzten. Asteazkenean ez duzu deskantsatzen. Zaballara joan etorriak... Hiru hilabete horrela egon ginen. Juntari eskumuturra eskatu genion, bidaiak ekiditeko aukera badagoe-lako, eta atzera bota zuten. Baina astebetara alarma egoera ezarri zuten eta kartzelak itxi zituzten. Lo egiten genuen tokia, Zaballaren kasuan, kartzelaren barruko modulu bat, itxi zuten. Orduan, eskumuturra irabazigenuen. COVID-19aren bi aldeak. Baina Adurri, Jokini eta Oihani hilabete horretarako baimenak eman zizkieten, eta ezin izan zuten atera. Ekainera arte ezin izan zuten. Gainera, gero, aislamenduan berrogeialdia egin behar zuten. Zigortzeko moduan erabiltzen zuten koarentena egitea. Eskumuturraren fasea etxeratze aginduekin eta abar izan

"LEHENENGO ASTEAN, BEHINTZAT, EZ NUEN NIRI GERTATUKO ZITZAILA PENTSATZEN"

dugunez, nahiko ongi eraman dut. Gero, egia da beste hainbat momentutan ez dela neurririk egon, eta gehiago molestatzeko zuela. Garapen bat izan da: kartzelan zaude eta ateratzen zara, zer ongi bakarrik lo egitera joan behar dudala, baina pisutsua egiten da; zer ongi etxean nagoela eskumuturrarekin eta ez naizela ezertarako joan behar, baina eskumuturra ere pisutsua egiten hasten ezin nuelako planik egin. Lagunak afaltzera mendira joaten ziren, erlojuari begira egon behar nuen. Lan egiteko ere. Batzuetan korrikari atera naiz tabernatik 00:50ak zirelako eta 1:00etan etxean egon behar nuelako. Orain kendu didatela askatasun osoa da. Arazorik gabe mugitu naiteke orain. **Aratzekin kalera atera zinen, baina besteak espetxean gelditu ziren.**

Oso desberdina izan da. Eta hori autoengainatuta atera ginela lehenengo aldi horretan, pentsatuz dena laster amaituko zela. Oraingoan, ez; oraingoan benetan amaitzen ari zen. Ni banoa, baina beranduenez sei hilabete-tan besteak aterako dira. Eta horrela izan zen. Zoriontasun sentsazioa zen. Guregatik eta beraingatik. Ez zen gu bagoaz eta ez genekiela besteak zenbat egongo ziren barruan.

Sareetan atzera kontua egin duzu. Amaiera ikusten zenuen?

Oso esamolde *talagero* bat dago, baina egia da: kartzelan sartzen

den jende guztiak ateratzeko data du. Nirea urriaren 4a zen eta, egia esan, terapia bezala izan da atzera kontuarena. Egiteko zer-bait izategatik. Goizean jaikitzen nintzen, eta jartzen nuen.

ELKARTASUNA

Lehenengo momentutik herriaren elkartasuna izugarria izan da. Espero zenuen?

Zorionez prozesu hori kanpotik bizitzeko aukera ere izan dut. Pentsatu nahi dut horrelako kasu baten aurrean, jende askok egin duen bezala, mugituko nintzela. Horrelako kasu bat horrela etortzen denean... mugitu behar zara. Jendearekin oso eskertuta gaude. Ez nuen espero, eta aldi berean bai. Altsasukoak aske plataformak eta Altsasu Gurasoak-ek lan handia egin dute leku askotara iristeko. Gertatutakoa ongi azaltzen baduzu, jendeak informazioa hartzen du eta mobilizatu behar dela sentitzen du. Beste aldaera bat izan zen Madriletik etortzen ziren albisteak aurrekoak baino gogorragoak zirela: 50 urte eskatzea erokeria bat zen. Auzi honek balio izan badu norbaiti buruan klik egiteko, ongi.

Denetarik egin da, baina beste itxiera bat merezi zuen?

Denboran asko luzatu da. Orain, adibidez, nik eskumuturra kendu dut, baina beste sei gelditzen dira eskumuturrarekin. Aratz eta biok atera ginenean, zer ekitaldi handi egingo duzu besteak kartzelan jarraitzen badute? Arraroa da, pixkanaka joaten delako. Katakragen nola-baiteko amaiera bat egin genuen. Nik uste nahikoa dela gure partetik alamaena emateaz. Nire aldetik horrelako auziekin nire laguntza eskainiko dut, zor antzeko bat daukat. Baina oso pertsonala da orain. Gertukoekin ospatzen duzu. Kontadoreak jarraitzen du, etxean daudelako, baina ez aske.

Zer ikasi duzu?

Zuzenbidean master bat egin dugula esan daiteke, eta egia da orain albisteak askoz gehiago aztertzen ditudala. Hedabide batera edo bestera jotzen duzu, eta ez duzu edozer gauza sinisten. Nire gorputzean bizi izan dudalako muntai mediatiko bat. Ez dela mediatikoa bakarrik: mediatikoa, poliziala, judiziala... Horregatik etxeko edo gertuko hedabideei benetako eskertza egin nahi diet. Ezer eskatu gabe dena eman duzue.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Merkelen legatua

Joan dira Merkelen agintaldiko hamasei urteak eta hauteskundeak egin ondotik, hurrengo alemaniar gobernuaren koloreak zein izanen diren dakigularik, baina zein nolako orekari eutsiko dioten zalantza izaki, oso seguritik dakiguna modu zuzen edo zeharkakoaz andere honen agintze tankerak jarraituko duela, hain baita luzea Angela Merkelen itzala.

Emakume kontserbadore eta demokristaua, herritar ugariaren sostengua eta konfiantza bereganatu du urtetan barrena. 2008ko krisiari austeritatearen jardunbideaz erantzun zion, alemaniar langileen dirusarrerak doitu, Mediterraneoko herrialdeak estutuz eta partikulari Grezia itolarrian utzi.

Baina ene ustez, askoz gehiago dira haren argiak. Siriako etorkinen aferan, bere etorkizun politikoa jokoan jarri eta garaile suertatu zen, European loratzen ari zen xenofobiari buru eginez. Bergisan, ultraeskuindarrekin hitzarmenik ez egiteko jarrerari gogor eutsi dio eta lander batean CDUk AfDekin eginiko gobernu ituna desegin eta akordio hura gauzatu zuten

ANDERE HONEN AGINTZE TANKERAK JARRAITUKO DUELA, HAIN BAITA LUZEA BERE ITZALA

alderdikideak degradatu zituen. Zilegi bekit gogora ekartzea Austrian, Italian zein Madrilen edo Andaluzian joera guztietako eskuindarrek hainbat gobernu ahalbidetu dituztela.

Kataluniako auziarekin, ordea, isilik gorde zen, eta ez

dezagun ahantzi Alemaniaren jardun proaktiboarengatik ez balitz Lituania, Eslovenia eta Kroazia ez liratekeela egun independenteak izango.

Angela Merkel joan badoa... Ala oraindik ez? Hainbat analistak dio Eguberriko gabon kantak eta Urteberriko topak eta besarkadak Merkel kantzilerra izaki egingen dituztela Alemanian.

Bejondeizula, Frau Merkel.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Urriaren 23an bete dezagun Donostia

SAKANAKO SARE HERRITARRA

Etena. Moztua. Kataiaz josia. Harresiz inguratua. Txarrantxaz gotortua. Blokeatua. Itxia izan da bidea urte luzez. Giltzapetua. Zarratua. Eta airez, hurrez, urez. Herritarren bultzadaz. Hegaz, oinez, abiadan... zabaldu da bidea. Ezinbestekoaz. Nekaezinaz. Etzerako bide. Elkarbizitarako etorbide. Ireki dugu bidea eta bilakatu gara gu ere bide. Gutzitu dira kilometroak. Zamak. Motxilak. Galerak. Orduak eta bakardadeak.

Ibilian-ibilian hasiak gara. Hasi besterik ez. Baina hasiak gara. Haziak. Hasi dira, poliki-poliki baina ekinez, gradu aldaketak eta Euskal Herriratzak. Etzerako bidea gauzatzeko behar-beharrezko pausoak. Atzean geratu da

isolamenduaren zigorra. Amets gaiztoen tontorra.

Oraindik ere ordea, urrun eta bakarka daude emakumeak, baina, elkartu gara, elkarrekin egon ezin genuela uste genuenak ere bai... Eta aukera horiek EGIN nahi ditugu. Baimenik gabe 3/4ak beteak. Eta bat gatoz, ziegan giltzapetuta larriki gaixo direnak, guraso gabe motxiladun umeak, ezohiko egoeran adinez nagusi direnak, eta bizi osorako zigor pean 7/2003 lege-pean kondena jaso dutenak.

Korapiloz beteta jarraitzen du euskal presoaren egoerak. Hasi baino ez gara egin, urrats ugari falta zaizkigu gauzatzeko bidea. Aldaketarako ordua da. Sortu dira aukerak. Sortu ditugu eta dituzte eta zituzten eta zenituzten... Haiek eta guk, hark eta hurak. Zuek. Denok. Egi Erreal.

Erein eta jaso. Argitu da bidea. Maldatsua eta luzea. Esperantzaz bete. Hauskorra eta geldoa, hasiera eta amaiera duen bidea. Mugarriz-mugarri, helmugara doan ibilbidea. Baina berdea. Baina batez ere, geldialdirik izan ezin duen bidea. Horixe da gurea. Etenaldi eta atzera urratsik gabea. Orain eta hemen egiten jarraitu behar duguna. Kontrako haizerik izango baita, eta lurrikarak, belar txarrak eta asunak. Gelditzen ez bagara ordea, ez da berriro itxiko ireki duguna. Oraingoan bai, bultzada bakoitzak badu bere erantzuna.

Salbuespena lege bilakatu zenetik, zigorrari gehitutako zigorren kiribila askatzen hasi da. Orain, guri dagokigu salbuespena desegin eta lege arruntera bidea egitea. Iritsi da denbora luzean landutako unea. Jarrai dezagun! Izan gaitezen gezi etzerako bidean. URRIAREN 23AN BETE DEZAGUN DONOSTIA.



OBJEKTIBOTIK

GUAIXEren udako alearen azala TOKIKOM Sarietan

Seigarren urtez jarraian, TOKIKOMek TOKIKOM Sariak emanen ditu aurten ere. Finalisten artean GUAIXEren Uda Sakanan azala dago. Gainera, epaimahaiak proposatutako bederatzi finalisten artean, publikoaren bozka gehien jasotzen dituen lanak Komunitatearen Saria eramango du. Bozkatu zure finalista gogokoena.

TOKIKOM SARIAK 2021

Finalista



Uda Sakanan

<https://labur.eus/KomunitatearenSaria>

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Oihane Mazkian Lopez de Muniain

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Haurrak eta emakumezkoa Iturmendiko plazarantz joaten. ARTXIBOA

Arratsaldeak jardueraz bete zaizkie Iturmendin

Arratsaldeetan Iturmendiko plaza hurrez eta jendez beteta dago astez. Bi amek herriko ikastaro eskaintza zabaltzeko proposamenak erantzun ona izan du eta astegun guztietan haur edota helduendako ikastaroak daude udal egoitzetan

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

Orain arte Iturmendin haurrendako eskolaz kanpoko eskaintza dantza eta txistu taldeetara mugatzen zen. "Txiki-txikiendako ez zegoen gauza handirik, eta, horregatik, animatu gara antolatzeraz". Jarduera eskaintza zabaltzearena "ez genuen asko pentsatu. Patricia eta biok kafea hartzen geunden eta esan genuen:

negua dator, zein luzea eginen zaigun, ez dago egiteko inolako ekintzarik. Ez genuen bi aldiz pentsatu". Lorena Aizpurua Unanuerenak dira azalpenak. Bien nahia zen "arratsaldeetan herria pixka bat bizirik mantentzeko zerbait antolatzea. Ume txikiendako zerbait antolatu nahian hasi ginen, baina, azkenean, herrira zabaldu da".

2 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei herrian bertan jarduerak izatea zer irudituko litzaiekeen galdezka hasi ziren. "Erantzuna oso ona izan zen". Bilera egin zuten. Aizpurua azaldu duenez, "proposatu ziren jarduerak herrira zabaldu eta egitea posible ziren galdetu genuen, eta erantzuna ere oso-oso ona izan da". Antolatutako jardueratan

60 urte bitarteko iturmendiarrak parte hartzen ari dira. Agorri-laren erdialdean sortutako ideia iraila erdialderako lotuta zegoen. Hau da, begiraleak lotuta eta egutegia zehaztuta. Eskaintzen diren jarduerak lastailarekin batera hasi dira.

Aizpurua esan duenez, "jendea oso pozik dago". Jakinarazi duenez, begirale asko iturmendiarrak dira. Esaterako, ludetakaria, pandero eta trikitixa edo multikirolekoa. "Oso jende gaztea da. Pozik gaude herriko jendeari ere lantxo bat eman diegulako". Guztira 30 bat familiak bat egin dute proposatutako eskaintzarekin. Eskerrak eman dizkiete iturmendiari emandako erantzunagatik.

Haurrendako eskaintza

Astean behin egiten diren jardueraz bete dute agenda iturmendiarrak. Alde batetik, 2 eta 6 urte arteko haurrendako ludoteka, ingelesez. "Jokoak, abestiak, dantza eta hori guztia egiten dute. Begiralea beraie ingelesez hitz egiten saiatzen da, hizkuntza pixka bat barneratzen joateko, ezaguna egiten joateko".

Kirola ere sustatzaileek begiz jota zuten, multikirola egitea zuten buruan. "Ikusten genuen herrian futbola oso zabaldua dagoela, baina iruditzen zitzaigun futbolaz aparte, beste kirol batzuk probatzea ere ongi egonen litzaitekeela. Beraz, bi astean behin-edo kirol aldaketa eginen dute". Kirolen berri emanez, bakoitzak gogoko duena praktikatzeko bidea eman nahi diete haurrei.

Musika ikasketa eskaintza zabaltzea ere egoki jo zuten. Txistu taldea aspalditik dago Iturmendin, "oso ondo funtzionatzen du". Dantza taldea ere badago herrian. Ikasturte honetan, pan-

dero eta trikitixa ikasketak hasi dira herrian. "Txikien eta nagusien taldea sortu dira. Egia esan, pozik erantzunarekin". Bestetik, buruan zuten eta aurrera egin ez duten ideien artean antzerki ikastaroarena dago.

Helduendako eskaintza

Marrazketa praktikatzeko "talde polit bat sortu da. Txikiak 6 urte izanen ditu eta nagusienak 50 urte inguru izanen ditu". Lankuntzako Jokin, Kale, da haien irakaslea. Belaunaldien arteko ezagutza sustatu dute horrela. Horretaz aparte, boxeo praktikatzeko taldea ere sortu da, "herriko talde batek sortuta". Helduendako eskaintza frantses ikastaroarekin osatu da. Aurretik pilates eta yoga ikastaroak ere bazuten Iturmendin.

Guztia martxan jartzerakoan sortu zen beste ideia bat izan zen: "etekin gutxi ateratzen diogun udaletxe bat dugu, batez ere arratsaldeetan hutsik ikusten genuena. Udalarekin harremanetan jarri ginen, eta aurrera egiteko esan ziguten, oso ideia ona zela. Herriaren etxeko hainbat gela erabiltzeko aukera zegoela esan ziguten. Herrian baditugu hainbat instalazio prestatuta daudenak". Udaletxeak musika marrazketa eta frantses ikasketak hartzen ditu. Eskola zaharra zen eraikinean, dantza, ludoteka eta boxeo egiten dira. Jarduera eskaintza zabalaren ondorioz, gaur egun, udal azpiegiturak "topera" daude.

"ARRATSALDEETAN HERRIA PIXKA BAT BIZIRIK MANTETZEKO ZERBAIT ANTOLATZEA PENTSATU GENUEN"

Ahozko ondarearen bilketa, aurkezteko garaia

Hilaren 20an eta 27an, 17:00etan, lortia kultur guneak aurkezpena hartuko du

ALTSASU

Altsasuko ahazko eta materialgabee den ondarea jasotzeko 46 altsasuar elkarrizketatu zituzten 2019ko urte akaberan. Labrit multimedia enpresa arduratzen elkarrizketak egiteaz, inde-

xatzeaz eta aztertzeaz. Beste herrietan egin den bezala, bilketa lan horretatik altsasuarren testigantzak jasotzen dituen bideoa osatu dute. Ikus-entzuzko horren aurkezpena lastailako azken bi asteazkenetan

emanen dute lortia kultur gunean, 17:00etan. Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, emanaldietara joateko gonbidapena jaso beharra dago aurretik.

Egindako lana Nafarroako Ondare Materialgabeearen Artxiboa proiektuaren baitan kokatzen da. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Filologiako eta Hizkuntzaren Didaktikako Sailarena da proiektu hori 2005etik. Helburua da "herrietako kultur genoma" jasotzea heldu diren belaunaldiei transmititzeko.



Ehazirikin lanean maitzeko artisau azokan. ARTXIBOA

Zuntz optikoko sarea ezartzeko pauso bat

Gobernuarekin hitzarmena sinatu da dirulaguntza jasotzeko. Sakanako Garapen Agentziak, Guifinet fundazioarekin batera, zuntz sare propioa ezartzeko proiektua landu du, banda zabala Aizkorbe eta Etxarri Aranatz bitartean zabalduko da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Telekomunikazio Batzordeko buru Gorka Ovejero Ganboak azaldu duenez, "Bartzelonan dagoen munduko banaketa gu-nearekin lotuko da Sakanako sarea. Handik ibarrera Red Electrica Españolaren sarearen bidez etorriko da eta, horregatik, alokairua pagatu beharko zaio". Zuntz azpiegitura propioa Sakanan nola banatuko litzatekeen azaldu du Ovejero: "banaketa puntu bat izanen dugu eta haren ekialdera eta mendebaldera 15 km-tan luzatuko da sarea". Jakinarazi duenez, behin behinean puntu hori Irañetan ezarriko da, baina behin betikoa Uhartea Arakilen jarriko da.

Ovejero gaineratu duenez, banda zabaleko sarea, lehenik, Arakil aldera zabalduko dute, eta, ondoren, Etxarri Aranatzera. Zuntza batetik bestera eramateko lanik handiena hura lurperatzeko kanalizazioa egitea da. Hori egin eta zuntza ezartzeko hiru hilabetez ariko dira lanean. Sarea Bakaikuraino zabalteko aukera legoke. Han Movistarren zuntz optikoa dute, baina Barga ondoko hamar bat etxetan enpresak ez zuen halakorik jarri.

Ibarrean zuntz optikoa zabalteko, SGAK eta Nafarroako Go-



Juan Cruz Cigudosa Garcia eta David Oroz Alonso. NAFARROAKO GOBERNUA

bernuak, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalerako Departamentuaren bitartez, hitzarmena sinatu zuten ostira-lean. Juan Cruz Cigudosa Garcia kontseilariak eta David Oroz Alonso SGAKo buruak sinatu zuten. Horrela, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen tramitazioan Geroa Baik eta EH Bilduk aurkeztutako emendakinari bide eman zaio. Proiektuak 400.000 euroko aurrekontua du eta 116.000 euro jarriko ditu gobernuak.

Cigudosak gogorarazi zuenez, "digitalizazio prozesuaren lehen

fasea da, eta hurrengo pausoa prestakuntza izango litzateke". Horretarako, eskua luzatu dio SGARI, arlo horretan lankidetzan aritzeko. Orozek, berriz, bi ideia azpimarratu zituen: "lehenik, ekimenak sakandarren behar oso zehatz bati erantzuten dio. Bigarrenik, nola egin dugun azpimarratu zuen: "proiektu honek dakarren gizarte berrikuntzarekin batera lankidetzeta eta komunitate espiritu hori dago, kalitatezko zerbitzua eta gizarte eta lurralde inplikazio nabarmena ematea ahalbidetuko duena".

Plazaola turismo eredua definitzen ari da

Hilaren 19an Jaunsaratsen bilera izanen da, Izena emateko 'labur.eus/3IQEe' edo 948 50 72 05 telefonoa

ARAKIL / IRURTZUN

Arakilgo eta Irurtzongo udalak kide dituen Plazaola turismo partzuergoak 2022-2025 Turismo Plana egiteko prozesua martxan du. Irurtzongo alkate eta turismo partzuergoko buru den Aitor Larraza Carrerak azaldu duenez, "turismoa, gure lurraldeko ekonomiaren ardatz garrantzitsua bihurtzen ari da. Hainbat arrazoiengatik, inflexio momentu batean gaude. Garai berrietara eta, batez ere, gure behar eta kezketara egokitutako turismo estrategia definitzeko unea da".

Plazaola eta Mendialdea eskualdeetarako turismo estrategia eta lan ildo nagusiak definitzeko parte hartze prozesua martxan jarri dute, eragile askori irekitako prozesua: turismo eragileak eta ez direnak, publikoak eta pribatuak, partzuergoari lotutakoak eta kidetuta ez daudenak,



Aitor Larraza Carrera. ARTXIBOA

eskualdekoak eta kanpokoak. Larrazak azaldu duenez, "egorearen analisia eta diagnostikoarekin hasi ginen lanean, eta lan saio batzuk bultzatu ditugu dagoeneko. Orain, eskualdeko turismo eredua eta estrategia markoa finkatu nahi ditugu".

Lizarragak badu zuntz optikoa

Duela hiru astetik Lizarragan zuntz optikoa dute. Movistar enpresak ezarri zuen sarea. Orain hala nahi duten eraikinetaraino sartu beharko da sarea. Eta haren bidez Lizarragako etxe guztietan eta Ergoienako udaletxean Internetera konektatzeko aukera izanen dute. Orain arte Lizarragan Sisnet sistemaren bidez izan dute Internetarako

konexioa. Artxuetan dagoen erreplikagailu batek bidalitako seinalea jasotzeko etxeetan antena parabolikoak baino pixka bat txikiagoa den tresna dute etxeetan jarrita eta horrekin moldatzen dira. Sisnetek zerbitzu egonkorra ematen du, baina ez da oso azkarra. Horregatik, Lizarragako Kontzejuak herriaren Internet lotura hobetzeko aukerak aztertu

izan ditu. Nafarroako Gobernuko Eraldaketa Digitalerako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak bideo bilera egin zuten apirila akaberan. "Orain lizerratarrek Internetera lotzeko bi aukera izanen dituzte, Sisnet eta Movistar. Azken hori egonkorragoa da, baina garestiagoa ere", azaldu du Unai Navarro Aristorena kontzejuko buruak. Lizarragan zuntz optikoa jarrita, Ergoienako hiru herrietan dago banda zabala jarrita.

Udazkeneko

AZOKA

2021

URRIAK

16

LARUNBATA

ALTSASU

10:00ETATIK 15:00ETARA

ELIKAĞAIEN ETA ARTISAUTZAREN AZOKA, IORTIA-BARATZAKOBIDE PLAZAN

Argazkia: AXIER IMAZ, Rally 2019

Diseinua: GK

Hondakin Zerbitzua hobetzeko neurri eske

Kamioi batek istripua izan ondoren, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko langileek "zerbitzuan eta langileon segurtasunean hobekuntzak" exijitu dituzte, "langileon zein sakandar guztien mesedetan"

LAKUNTZA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketako kamioi batek istripua izan zuen Unanun hilaren 4an. Horregatik, langileek beraien protesta eta aldarrikapenak Mank-eko egoitzara eramanean zituzten ostiralean. *Kudeaketa txarra = prekaritatea lan istripu gehiagorik ez!* leloa zuen pankarta zabaldu zuten. Langileek salatu dutenez, "Mank-eko zerbitzu handiena izanik, esparru batzuetan okerrera egiten ari gara. Horrek gure lana zaildu eta gure segurtasuna arriskuan jartzen du". Okerrera doazenen artean, besteak beste, aipatu zituzten kamioiak, edukiontzia, etxolak,



Langileen protesta. UTZITAKOA

postea edota bulegoko langileen ordezkapen eza.

Langileek "Mank-en eta zerbitzuaren artean koordinazio eta

komunikazio falta sumatzen" dute, "eta horrek behar bezalako zerbitzu bat eskaintzea zailtzen du". Zerbitzu egokia eskaintzeko "guztioak ditugula ardurak onartuz, aurrerantzean horrelako gertakariak ez errepikatzea eta berandu baino lehen eskaintzen dugun zerbitzuan eta langileon segurtasunean hobekuntzak egotea espero dugu". Langileen eskaerak dira: beharrezko erantzuten dieten kontratuak, lan segurtasunean hobekuntzak, laneko materialaren berrikusketa, kamioien mantentze egokia, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa eta beste. Neurriak "orain" hartzea exijitu zuten langileek.

Pikuxar elkartearen mustutze eguna iritsi da

Bazkide egin nahi duenak 'pikuxar4.0@gmail.com' e-posta helbidera idatzi beharko du. 129 kide dira

IRURTZUN

Lizarra kaleko egoitza berria mustuko du Pikuxar elkarteak larunbatean. Pandemia bitartean jaso dute eraikina, eta bazkideek makina bat auzolan egin dituzte hura egoki jartzeko. Garilaren 30az geroztik bazkideak elkarte erabiltzen ari dira, baina osasun egoerak onera egin duenean, Pikuxar elkarte berria mustutzeko garaia heldu zaie.

Pikukideak 12:30ean elkartuko dira. Bertsolariak izanen dira egitaraua zabalduko dutenak. Bitartean herrian barna trikitipoteoan ibiliko dira. 14:30ean mahaira eseriko dira, bazkaltzera. Ondoren, kantari ariko dira, euskal airez osatutako errepertorioarekin. 17:30ean elkartetik atera eta Galtzagorri txarangarekin herriko tabernak bisitatuko dituzte. 20:00etan Pikuplazan musika jarriko dute



Legarra eta Irastorza bertsotan. ARTXIBOA

eta 21:30ean, atzera ere, elkar-tekideak mahaira eseriko dira, afaltzera. Bertsolariak eta hitzaldiren bat ere izanen dira larunbatean. Pikuxarretik azaldu dutenez, egoitza berriko espazioak egokitu hala, mustutze ekitaldiak eginen dituzte.

Arazaok sortu zituen txakur jabea joan da

San Saastin eta San Pedro ermitan kanpatuta egon zen gizona, bederatzi txakurrekin

ARRUAZU / LAKUNTZA

Lakuntzar askok paseatzeko San Saastin ermitara jotzen dute. Ubertarrak eta arbazuarrak ere handik paseatzen ibiltzen dira. Garagarrilaren akaberatik ordea, jendea ez zen lasai joaten. Ermi-

tara iristear zirela bederatzi txakur zaunka jaisten zitzaizkien. Jendea izutu egiten zen. Animalien jabea gizonazko bizkaitar bat da, ermita ondoan kanpatzen egon zena. Jendeak egoera salatu eta Foruzaingoaren eta Guar-

dia Civilaren bisitak izan ondoren, gizonak Arruazuko San Pedronon jarri zuen kanpin denda. Eta iraileko azken ostiralera arte han bizi izan da gizona bere txakurrekin. Bitarte horretan animalia saldoak jendea izutu du. Inguruko abeltzainak ere ez zeuden eroso. Gizonazko kaudimengabea denez, dirurik ez duenez, jarritako isunak ordaindu gabe utzi ditu.

Abeltzainekazienda menditik jaisteko garaia zela eta txakurren jarreraren berri izanda, abeltzai-



Lakuntzarrak paseatzen. ARTXIBOA

nak bero zeudela jakinarazi zioten gizonari. Arruazuko eta Lakuntzako alkateek egoera aztertuzuten, eta Foruzaingoaren Altsasuko buruarekin hitz egin ondoren, gizonari egoera azaldu zioten. Joateko eguna zehaztu zuen berak, hala egin zuen foruzainen presentzian. Euskal Herrikan kanpora joan omen da. Hirugarren urtea zuen Sakanara etortzen. Esaterako, Altsasun egona zen joan den urtean. Aurtengo uda hasieran Arbizun izana zen.

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 896 979 279 • GeltoKI auzoa 11 • ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Egun hauetan bokatak aukeran **BARRAN**

Telefono berria: 948 562 348 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jatetxea

Menua, plater konbinatuak eta ogitartekoak aukeran

Garcia Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

Txalaparta

Giro ezin **Taberna hobe!**

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Lehen sektoreko langileen balioa handitzeko

Cederna Garalur elkarteak lantegia antolatu du. Arbizuko Utzuganen hilaren 21ean eta 28an

SAKANA

Cederna Garalur elkarteak lehen sektorean ari diren pertsonak ahalduz lantegiak antolatu ditu. Lantegi horiek elkartearen beraren "Lehen sektorearen balorizazioa" izeneko proiektuaren barnean sartzen dira, tokiko nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak Nafarroako Mendialdeko herrien tokiko ekonomian duen garrantziari balioa emateko, eta elikadura aberatsa eta osasungarria lortzeko. Lantegiak Arbizuko industrialdean dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentzuan, iizanen dira hilaren 21ean eta 28an, 09:30etik 13:30era. Launa orduko aurrez aurreko bi saio horiek online saio pertsonalizatu batekin osatuko dira, parte hartzaile bakoitzaren ekin-tza plana sustatzeko. Izena emateko info@cederna.es e-posta helbidera idatzi behar da. Bestela, 948 20 66 97 telefonora hots egin. Cederna Garalur elkartetik jakinarazi dutenez, lantegirako plazak mugatuak dira.

Garalurren "Lehen sektorearen balorizazioa" izeneko proiektuak Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren LGENFren finantziazioa du, 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapeneko Programaren bidez.

Goiko ur hornidura sarea berritzeko lanak hasi dira

Uraren presioagatik eta bargako lurren mugimenduagatik duela 60 bat urte jarritako mikrozentuzko ur hodiak askotan hausten dira eta hori saihesteko hoditeria berria jarriko da. Zati batean poliuretanozkoa eta bestea fundiziozkoa

UHARTE ARAKIL

Duela aste bat hasi ziren ur hodia berritzen. Lanak Coyser Construciones y Servicios enpresa egiten ari da eta haiengatik 177.370,5 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Lanak hiru hilabetean egin beharko ditu. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan dago lana, EH Bilduk hala izan zedin mozioa aurkeztu baitzuen joan zen urtean. Ganbeleta eta ur biltegiaren arteko ur ekarriko hoditeria guztiz berritu beharra dago. Gaur egun, mikrozentuzko hodia dago, joan den mendeko 60ko hamarkadan jarritakoa. Presioa hausteko punturik ez dago sarean eta horrek



Alkatea Ziriza kontseilariari biltegiaren azalpenak ematen. UTZITAKOIA

urak presio handia izatea dakar. Horren eta lur mugimenduen ondorioz, hodia askotan hausten da, eta ur ihesak atzematea zaila da udal langileendako. Gainera, mikrozentuzko ur hodiak askotan kontuz ibili behar izaten dute. Goiko ur horniduraren zati bat, hala ere, fundiziozkoa da. Hain justu Kamioxtar dermioan, handik Sakanako Autobia egiteko legarra atera baitzuten.

Iturburuan dauden lau etxole-tako atek eta aireztapena aldatuko da. Haietan dauden filtraziorako eta banatzeko elementuak berrituko dira, eta etxolak lotzen dituzten mikrozentuzko hodiak fundiziozkoengatik aldatuko dira. Iturburu itxi egingen da, animalia hara ez sartzeko. Proiektuaren arabera, iturburu ondoan, zatirik maldatsuenan polietileno-zko hodia jarriko da. Gutxi gorabehera 1.200 bat metrotan. Zelaiagoa den beheko zatian, Kamioxtarretik ur biltegiaren arteko tartean, fundiziozko hodiak 720 bat metrotan. Hoditeria metro bateko sakoneran sartuko dute. Ura biltegiara presio gutxiagorekin irits dadin neurriak hartuko dira ere.

Ibilgailuen abiadurari oztopoak jarri dizkio udalak

Plazatik industrialderako kalean jarri ditu. Bestetik, San Joan plazako argiztapena hobetu egin du

BAKAIKU

Oinezkoen segurtasuna handitzeko, herrien barruan ibilgailuen gehienezko abiadura 30 km ordukoa da, baina badira abiadura muga hori errespetatzen ez duten gidariak. Horregatik, Bakaikuko

Udalak Elizazpi eta Santioalde kaleetan ibilgailuen abiadura murrizteko oztopo goratuak jarri ditu, zehazki, lau. Horretaz aparte, Burunda ibai gaineko zubian zebraide goratua jarri du. Aldi berean, San Joan plazan, elkar-

tearen parean, ezinduendako aparkalekua prestatu du. Bideberriale kalean dauden hiru zebraideen pintura ere berritu da. Guztia 11.500 euroren truke.

Bestetik, Bakaikun apenas dago LED argirik. Baina irailean San Joan plazako berdegunean jarri zituen Bakaikuko Udalak. Nahiko ilun zegoen ingurua eta beste argitasun bat du orain. Han dauden eskulturak ere argiztatu dira. Lanek 9.600 euroko aurrekontua izan dute. Gobernuaren 19.000 euroko dirulaguntza izan du.



Zebraideak margotzen. ARTXIBOIA


GUAIXE
661 523 245


Konfiantzazko aseguradora orokorra!
MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

ASI SON LOS PRECIOS DEL SEGURO DE AUTOS PORQUE LA GARANTIA DE POR VIDA BETIKO BERMEA DE LA REPARACION EFECTIVA EN SU GARANTIA DE POR VIDA BETIKO BERMEA

Eguneroko ogia eta opilak

PORTUKO
okidengia
Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Osasun zerbitzu egokia eskatu diote gobernuari pentsiodunen mugimendutik.

Osasun zerbitzua 'gaixo' dago eta 'sendatzea' eskatu dute

Pentsiodunen mugimenduak gobernuari eskaera egin dio. Astelehenean bankuetara eramanen dute protesta

ALTSASU

Sakanako Pentsiodunen eta Jubilatuen Mugimenduak osasun etxeraino eraman zituen bere aldarrikapenak astelehenean. Zuzendaritzari eta Osasun Kontseiluari zuzendutako idatzietan eskatzen zuten, batetik, arlo guztietan arreta egokia eskaintzea. Bestetik, aurrez aurreko kontsultak izatea, bestelako aukerak baztertu gabe. Horrekin batera, Osasun Kontseilua berrabiaraztea aldarrikatu zuten mugimenduko kideek. Gainera, langile ratioak egoki betetzea aldarrikatu zuten. Horretaz aparte,

mediku bakoitzak duen kupoa murriztea eskatu zuten, "arreta hobetzeko eta kontsultan denbora gehiago pasa ahal izateko". Mugimenduak gogorarazi zuen pandemiarengatik hainbat gaitzen tratamendua eta ebakuntzak bertan behera gelditu direla.

Bestetik banketxeen plantilla murrizketa, aurrez aurreko arreta egoki falta, ordutegi mugatuak eta beste salatzeak astelehenean, 12:00etan, Zumalakarregi plazatik San Joan kaleko bankuetara joanen dira. Eta hilaren 25ean Bakea eta Erkuden kaleetako bankuetara, udaletxetik.

DUELA 25 URTE...



Nafarroa Oinez ospatu zen Etxarri Aranatzan

Andra Mari ikastolak 7 km-ko ibilbidea prestatu zuen, zazpi gunez osaturik: Aritzalkon 2, Illarra, Errekaburu, Puttobioki, Utzubar txiki eta Baratzeta. 1.500 eta 2.000 pertsona artean aritu ziren egunean lanean. Berrikuntzen artean Internet delako bat zegoen. Eguraldia haizetsua eta hotza izan zen. Hurrengo egunean Andra Mari ikastolako komunitateak garbiketa lanak egin zituen. Hezkuntzaren erreformak eskatutako baldintzetara egokitze baliatu zen lortutako dirua.

Antolakuntza komunistari bultzada

Euskal Herriko Gazte Topaketa Sozialistak horretarako balio izan duela esan dute antolatzaileek. Auzi politikoen inguruko hausnarketa eta aisialdirako eskaintza zabala oinarri izan du topaguneak. Guztira 2000 pertsona inguru izan dira Altsasun

ALTSASU

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) eta Ikasle Abertzaleak-ek (IA) Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista antolatu zuten Altsasun ostiraletik asteartera. Bi erakundeetako kide sakandarrak esan digutenez, bost egun egun iraun duen topagunea Altsasun izan da, "argi" zuten "lan karga handia izango genuela, baina, erronka horri gogotsu eta indarrez aurre egin diogu eta egindako lanaren inguruan balorazio positiboa egiten dugu". Aldi berean, kideek "eskerrak eman" nahi dizkiete topagunean parte hartu duten "norbanako orori egun hauetan txandak betetzeagatik, ekintzetan parte hartzeagatik, eta espero dugu topagunean jorratu diren ideiak eta ikuspegiak eztabaidatu izana parte hartu duen jendearen politika prestakuntzarako baliagarriak izatea".

GKSko eta IAko kide sakandarraren iritziz, topagunera "hainbeste jende hurbildu izana eta konpromiso militanteagatik aurrera eramatea lortu den topagune sozialistak motibatu besterik ez gaitu egin. Beraz, lanean jarraitzea baino ez zaigu geratzen, burgesiaren boterearen aurkako dinamika politikoak antolatuz, gero eta jende gehiago antolakuntza komunistara bartzeko helburuarekin".

Mamia

Hitzaldien eta mahai inguru baten bidez gai politikoei buruzko hausnarketa sustatu nahi izan zuten gazte erakunde antolatzaileek. Larunbateko *Krisi kapitalista eta estrategia sozialista berriaren oinarriak* hitzaldian "krisialdi kapitalistaren arrazoiak ulertzeko hainbat gakoren azalpenak mahaigaineratu ziren, adierazpen sozial, politiko, militar eta ekologikoa nabarmenduz". Horrekin batera, "komunismoaren porrot historikoaren



Hitzaldietan makina bat jende elkartu zen. WWW.GEDAR.EUS

hipotesiak plazaratuz estrategia sozialista berriro ere aktibatzeko proletalgoaren antolakuntzarako independentzia eta independentzia ideologikoa defendatu ditugu".

Hiru hitzaldi izan ziren igandean: *Zapalkuntzei aurre egiteko metodologiaz*, Gune Nagusian; *Ekonomia borroka ikuspegi sozialistatik aztertuz*, Zelandi frontoian eta *Askatasun politikoen aldeko borrokaren garrantzia*, Iortia kultur gunean. Sakandarrak azaldu dutenez, "burgesiak salbuespen egoera politikoak ezarri ditu munduko lurralde askotan, eta ofentsiba ekonomiko eta politikoa bizkortu du, proletalgoaren gizarte, ekonomia eta politika eskubideak ezabatuz. Zentzu horretan, auzi bakoitzean gehiago murgiltzeko aukera izan genuen".

Igandeko mahai inguruan, berriz, "gaur egungo Euskal Herriko testuinguru politikoa izan genuen aztergai, irakurketa kritiko bat eginez". Asteleheneko ekitaldi nagusian "gaur egun burgesiaren totalitarismoaren aurrean komunismoa askatasun unibertsalerako proiektua dela mahai gaineratu zen".

Aisia

Politika prestakuntzarekin batera, aisialdi eskaintza zabala izan du topaguneak. Iortia kultur gune parean jarritako karpak egitarau propioa izan zuten, eta bertan erakusketak, kontzertuak, bertso saioak eta bestelakoez aparte, bazkaldu eta afaltzeko aukera izan zen. Egitarau nagusia umorezko ikuskizun batekin abiatu zen ostiraletan. Larunbat arratsaldean herrialdeen arteko olinpiadak jokatu ziren. Gauean *Ez du gureak egingo. Bertso zahar eta berriak gaurkoari atzo jarriak* ikuskizuna egon zen.

Igandean kirol ikuskizunak izan ziren: pala, pilota eta herri kirolak. Astelehen goizean, berriz, "gaitasun zehatzak lantzeko tailerrak egin genituen, herriko hainbat gunetan banatuta. Besteak beste, mekanika, lege aholkularitza, informatika segurtasuna, soinu teknika, antzerkia, argazkilaritza, muralgintza saioak izan ziren". Hori guztia musika eskaintza zabalarekin jantzita. Gaztetxean, karpan, Zelandi frontoian eta Gune Nagusian hainbat kontzertu programatu zituzten, eta jende ugari izan zen haietan.



“Erregalu bat da nik irakurtzen dudan poz beragaz beste etxe batean nik idatzia hartzea”

Onintza Enbeita

Bertsolaria eta iritzigilea

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

"Bizitasuna ematen diote gure hizkerari"

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON EUSKAL FILOLOGIAKO DOKTOREA

Bere azken liburuan 916 esapide edo esamolde jaso ditu, normalean hiztegieta jasozten ez direnak. Garai batean erabilitakoak eta egun, oraindik erabiltzen direnak

Eneida Carreño Mundiñano /

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Euskararen inguruko lexikografia, dialektologia, toponimia eta soziolinguistikako ikerketak bultzatzeko helburuz, Euskarabideak euskarari buruzko ikerketa linguistikoen lehiaketa antolatatu zuen bigarren zuzenaren urtean. Linguistika arloko ikerketa lehiaketak bi irabazle izan zituen: Koldo Colomo Castro eta Jose Luis Erdozia Mauleon. Bien lanak liburu formatuan argitaratu ditu Nafarroako Gobernuak. Etxarriarraren *Lehenengo harenez. Nafarroako euskal hizkeretako lexia konposatuak* (2021, Pamiela) liburua dagoeneko kalean da.

Lehenengo harenez?

Hainbatek galdetu didate zer den hori. Etxarri Aranatzaren lenguarren esaten da. Bereziki Etxarri erabiltzen da, Lizarragan ere, pixka bat aldatuta. Askotan, zerbait esan behar dugunean, esaten dugu: lehenago ere hola esaten zuten. Gaztelaniaz izanen litzateke: *como decia el otro*. Lenguenures ere erabiltzen zen. Liburuan jasota dago zein testuingurutan erabiltzen den eta dokumentazioa baldin badago, jasota dago. Bestela, herritarrek nola erabiltzen dugun.

Lexia konposatuak zer dira?

Lehendabiziko lexia. Lexikotik heldu da. Hiztegieta agertzen diren hitzak. Baina kasu honetan konposatuak esaten ditut. Izaten dira: esamolde, esapide edo aditz perifrasiak. Aditza bera beste zerbaitekin batera dira aditz perifrasiak. Esaterako: jatera eman. Ez da eman bakarrik, eta ez da jan bakarrik. Eta gero lexikoan agertu beharko luketen hitzak, baina hitz bat baino gehiagorekin osatuta dagoena izanen litzateke lexia konposatua; iyun dienak (inon direnak! *¡Habrase visto!*) eta halakoak. Ez da hitz bakarra. Baina asko erabiltzen ditugu eta, dagoeneko, zentzu berezia dute. Lexikokoa esateko.



Jose Luis Erdozia Mauleon, toponimiari buruzko liburua aurkezten. ARTXIBOA

Hizkuntza nola ikasten den. Hiztunak sortu eta hizkuntzalariak nola jaso, sailkatu eta arautzen du. Eta ez aldrebes. Horren inguruko hausnarketa txiki bat egin duzu sarreran. Euskaldun zaharrei nolabait garrantzia emateko da. Euskaldun zaharrik ez balego ez genuke XXI. mendean euskara ezagutuko. Erabat galduta egonen zen, euskarak debekuak izan dituelako, baina betiko euskaldunek, eskolatu gabeak izan gabe ere, mantendu eta erabili dute hizkuntza. Badago teoria bat esaten duena sortzez gizakiok oinarrizko gramatika bat dugula. Hau da, gure biologian-edo nolabait ekartzen duguna. Oinarrizko gramatika hori da: non tokatu zaizu jaiotzea, horko gramatika lantzen duzu. Hori aitaren eta amaren bular eta paparretik sortzen da. Hasiara-hasieran ez zeuden hizkuntzalariak. Hiztunak zeuden bakarrik. Hiztunek sortzen, aberasten, handitzen eta osatzen zuten hizkuntza. Garai jakin batzuetan hori aztertzea etorri ziren batzuk. Nire ikuspegitik hori da segida: hiztunak sortzen du, gero hizkuntzalaria etortzen da eta hiztunak nola egiten duen egituratzen saiatzen

da. Hori jaso. Eta beste batzuk horren arora ikasi dezakete. Horrek izan behar du segida arrunta, eta ez alderantziz. Hau da, hizkuntzalariak esan nola izan behar duen, nolabait agindu nola erabili behar den hizkuntza, eta gero hiztunek erabili.

Lexia konposatuak horren adibide oso egokia dira. Beti sortu dira oso testuinguru berezi batean. Testuinguru berezi horietan errepikatuz eta errepikatuz, nahiz eta bi, hiru edo lau hitzez osatuak izan, esanahiaren aldetik hitz bakarrean bihurtu dira. Horrek ez du inolako araurik. Bakarrik erabilerak ematen du hori horrela izateko aukera.

Nafarroako zein euskal hizkeretako lexia konposatuak jaso dituzu? Doktore tesia egiteko Arakil mendaldea eta Aranatz, Sakana erdialdea, aztertu nituenean, ikusi nuen errepikatzen zirela horrelako hainbat esamolde, esapide edo aditz perifrasi. Hiztegieta joan eta bakarrik izena, izenondoa, adberbioak edo aditzak jasozten dira. Baina azpisarrera batzuk izaten dira eta hor batzuk jasozten dira, baina asko eta asko falta dira. Hemen helburua izan da Euskaltzaindiaren hiztegieta,

ofizialean, falta diren horietako ahalik eta gehien jasotzea. Aspaldi hasi nintzen. Geldi-geldi joan zen osatzen. Orain jubilazioarekin eta pandemiarekin denbora gehiago eduki dugunez etxezuloan egoteko, jaso ditut asko Sakana, Zaraitzu, Luzaide, Artzibar, Erroibar, Esteribar, Ultzama, Basaburua, Imotz, Leitzaldea, Larraun, Aezkoa, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Erronkaribar, Bortziriak, Sunbilla, Malerreka... Gaur egun bizirik dauden euskal hizkeretakoak. Eta, zenbait kasutan, baita ere itzalita dauden tokietako hizkerak ere, baina liburueta gelditu direnak.

Nola dago egituratuta liburua?

Alfabetikoki. Gorriz esapidea eta esamoldea, eta gero azalpenak. Eta errepikatzen denean izen bat edo aditz bat, multzokatu egin ditut. Batzuk ez dira errepikatzen eta solte joaten dira. Horretaz aparte, hasierako hizkiarekin banan-banan eman ditut. Aurkibidean ere horrela agertzen da, opatzeko errazago. Esaterako, lehenengo sarrera, Aditza bota. Jartzen dut nola erabiltzen den Burundan eta aditz perifrasi bat dela. Non agertzen den ere jarri dut: zeharka jakitera eman, argi eta garbi izan gabe ere zerbait adierazi. Orotariko Euskal Hiztegieta agertzen dena eta Urdaingo adibide bat jartzen ditut. Gaztelaniaz zer esan nahi duen: *dar a entender*. Eta dokumentazioa, nik, behintzat, herritarrei adituta izan dela grabazioetan-eta.

Zein da liburuaren helburua?

Liburuak jaso egiten du, eta dokumentuen bidez erakusten du nola erabili izan diren. Kasu gehienetan erdi ahaztuta dauzkagu. Gero eta gehiago komentatzen dugu gaur egungo euskara, euskara batua nahiko zurruna dela, kostatu egiten da, ez dauka bizitasun askorik. Nik uste dut halakoek bizitasuna ematen diotela. Hauek ez daude halako arau baten mendean erakita. Testuinguru zehatz batean, pertsona normalek sortutakoak... Helburua da beraien erabilera zabaltzea.

Nola bulkatu erabilera hori?

Euskaltegieta, ikastaroetan... Herrian ateratzen garenean, horrelakoren bat bota eta: a, bai! Hori aspaldi ez genuen erabiltzen! Sakanan badiugu euskara taldeak eta aitzakia ederra izan daiteke. Bakoitzak bere herri edo eskualdekoak. Segur asko gazteek erdi

galduta dauzkate. Horiendako izan daiteke. Belaunaldiz belaunaldi transmititu egin dira. Hori gaur egun ere egin beharra dugu. Kalean jendearekin gaudenean, martxan jarri. Ez dugu ezer asmatu behar, hor ditugu denak.

Adibideak

- **Aide mila demonio fan, ehun deaburen ziztuan joan, furrundaka joan, puzkar batean joan, herio begigorri abiatu, galupeka.** Horiek denak norbaitek edo zerbaitek presaka edo oso azkar alde egin zutela esateko dira.
- **Auzomotojorik egon.** Harroturik egon. Azken hori duela ia bost urtera arte galdurik genuen Etxarri. Eta jendea erabiltzen hasi da.
- **Aizkoran ahoa baino aurpegi zorrotzagoa.** Etxarriko esapidea. Oso itxura serioa duen pertsona bati esaten ziztaion.
- **Aizkora kolpez egindako aurpegia zuen.** Oso pertsona zakarra, hala esaten zen Etxarri.
- **Antza; antzean, bezala.** Dagoeneko gose antza nago; triste antza dago, lodi antza, euri antza egon da goizean, gaizki antza nabil, urte guztia dago jai antza (lan gutxi egiten duela).
- **Atrebitu; atreverse, debekua adierazteko.** Atrebi izaan den! Ez haiz ausartuko!
- **Aures bieldu, austapur bidali.** Ingurutik norbait bidali, alde hemendik esateko.
- **Azienda gobernatu.** Ez da bakarrik animaliak, haurrekin ere. Azienda gobernatzea tokatzen zait, hau da, haurrak dauzkate eta gaur nik egon behar dut beraiekin.
- **Larritestu ibili.** Estuturik egon. Gehienetan estu eta larri esaten da.
- **Luzegarriak eman.** Luza-menduetan ibili, espero den erantzuna eman gabe. *Dar largas*.
- **Hobie utse!** Hobe duk ura! Mehatxu bezala erabiltzen da. *Mas te vale que...*

Euskarazko kultura digitala gazteen eskura

Arbizun musika sortu eta nahasteko aplikazioei buruzko ikastaroa izanen da eta Altsasun 3D inprimagailuei buruzkoa. <http://sareaneuskaraz.eus/izena-eman> webgunean eman behar da izena. Ikastaroak dohainik dira

ARBIZU / ALTSASU

Gazteen artean euskarazko kultura digitala sustatu eta ezagutarazteko sortu du Euskarabideak Sarean Euskaraz programa. Sakanan bi ikastaro antolatatu ditu. Lehenengoa, *musika sortu eta nahasteko aplikazioak*, Arbizuko liburutegian izanen da hilaren 23an, 11:00etatik 13:00eta-

ra. DJ Makalaren bidez mugikorrak, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen dituzten musika aplikazio berriei ariko dira era erraz, intuitibo eta dibertigarrian. Musika sortzea, nahastea eta, azkenik, zabaltzea izanen da helburua. Parte hartzeko beharrezkoa da mugikorra edo tableta eta kaskoak eramatea.

Bigarren ikastaroa, *3D inprimagailuak*, Altsasuko Intxostiapunta Gazte gunean izanen da lastailaren 30ean, 17:00etatik 20:00etara. Protomakersekoen bidez, taldeka, objektu bat sortu, diseinatu eta modelatzeko prozesu guztia ezagutuko dute, objektua inprimatu arte. Internetetik diseinuak



Gazteak musika sortu eta nahasteko ikastaroan. UTZITAKOA

eskuratu eta konpartitzeko aukera ere izanen dute.

Sarean Euskaraz programaren helburua da euskara eta teknologia berriak guztien eskura jartzea. Horretarako, ikastaroen bidez, gazteen teknologia pres-

takuntza eta IKTn euskararen erabilpena bulkatzea. Baita, softwareen euskaratzea bultzatzea eta horiek instalatzeko nahiz erabiltzeko ohitura sustatzea, baita euskarazko IKTn sektorea ikusgarri egitea eta balioestea.



Aurtengo berriemaileak. GAZTERIA ZERBITZUA

Intxostiapuntak berriemaile berriak ditu

Ikastetxeek gazte berriemaileak dituzte. Gazteria Zerbitzuaren eskaintza gazteei ezagutarazi behar diete

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak laugarren ikasturtez martxan jarri du Gazte berriemaileak programa, herriko ikastetxe guztietara iritsiko dena. Hori zortzi ikasleren bidez egingen du, honakoak: Jonathan Laura Pacifico eta Aya Essouabny Labzae, Sakana Lanbide Heziketa institutuan; Aitziber Da Costa Taboada eta Cristina Matias Tapia, Altsasu Bigarren Hezkuntzako institutuan; Leire Agirre Aldaz eta Amair Markez Imaz, Iñigo Aritza ikastolan eta Yuri Andreo Lerma eta Julen Garcia

Alonso, Sagrado Corazon ikastetxean.

Zortziek Intxostiapunta gazte gunearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dute eta lagun eta ikaskideei gazte gunean antolatutako jardueren berri eman diete. Baita haiengandik jasotako proposamena Gazteria Zerbitzuari jakinarazi ere. Horretarako ikastetxe bakoitzeko sortutako Gazte Informazio Gunea euskarria izanen dute. Baina sare sozialak ere erabiliko dituzte. Informazioa osatzeko gazte txokoko teknikariarekin bilduko dira asteazkenetan.

Sormen tailer honetan liburu bat egiten ikasiko dugu modu dibertigarri batean

Sormen tailerra

LIBURU BAT EGINCO DUGU

Adin tartea: 8-12 URTE BITARTE

Data: URRIAREN 26AN (INSTEARTERREAN) | Orduetgia: 17:00ETATIK 18:30ERA | Tokia: OLAZTIKO LUOTEKAN

Izen-ematea: Tokiak mugatuak dira. Horregatik aldeztu aurretik izena eman behar da euskara1@sakana-mank.eus helbidean

Elikagai eta artisautza azoka, eta gehiago

Larunbatean, 10:00etatik 15:00etara, kultur gune pareko zabalgunean eta Baratzekobide plazan. Mexikar musika eta erraldoi eta buruhandien konpartsa ere izanen dira asteburuan

ALTSASU

Pandemiagatik Altsasuko Udalak aurten ez du ferietarako egitaraurik prestatu. Hala ere, elikagaien eta artisautzaren azoka antolatu du larunbat goiz eguerdirako. Udalak azaldu duenez, "azoka horren helburua da kalitate goreneko prestatutako hurbileko produktuak kontsumitzailerari hurbiltzea". Guztira 16 ekoi zle eta 13 artisau izanen dira larunbatean Altsasun. "Azokan elikagai bikainak aurkituko dituzu, horietako batzuk ekologikoak". Artisauen eskaintza ere zabala da. "Udalak berriro ere gure nekazaritzaren eta eskulangintzaren aldeko apustua



Aurten azokako salmahaiak kultur gune inguruan jarriko dira. ARTXIBOA

egiten du, altsasuarrek eta bizi-tatzen gaituzten pertsonen lehen mailako produktuak eskuragai izan ditzaten, horrela, gure nekazari eta eskulangileei ere laguntzeko", azpimarratu du.

Azokaz aparte, asteburuan ekitaldi gehiago izanen dira. Puro Relajo taldeak gaur kontzertua eskainiko du Iortia kultur gunean. Bi emanaldi izanen dira. Ohi bezala, Artekalek arte azoka prestatu du. Asteazkenean zabaldu zituen ateak Iortia kultur gunean, eta azaroaren 4ra arte ikusgai izanen da. Gainera, domekan, 10:30etik 14:00etara arte, azoka kalean izanen da. Domekan ere kalera bueltatuko dena Altsasuko Erraldoien konpartsa izanen da. 11:30ean Intxostiapuntako gimnasiotik abiatuko dira. Herriko kaleetatik barna ibili ondoren, 14:00etan, Foru plazara iritsiko dira erraldoiak. Altsasuko Mendigoizaleak elkarteak 35. argazki rallya antolatu du domeka goizerako. Udalaren asteburuko eskaintza borobiltzeko Iortia kultur guneak Paul Verhoevenen *Benedetta* filmaren emanaldia hartuko du, domekan, 19:30ean.



Musika kalera bueltatuko da. ARTXIBOA

Kale animazioa bueltan da bihar

Larunbat eguerditik gauera arteko egitaraua prestatu dute hainbat herritarrek

ALTSASU

Hainbat altsasuar elkartu dira "berriro betiko Altsasuko giroaz gozatzeko aukera" emateko asmoz. Ferien asteburuan ohi zen moduan, egitaraua prestatu dute larunbaterako. Egitaraua Bertso poteoarekin hasiko da. Foru plaza izanen da abiapuntua, 12:30ean. Bertso poteoaren ondoren, bazkaltzera joanen dira frontoira, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, txarangaren laguntzarekin kalejiran ibiliko dira, 16:30etik 21:00etara. Tartean Zumalakarregi plazatik Foru plazarako jaitsiera egingen dutela ere iragarri dute. Egitaraua despeditzeko, 22:30etik aurrera, Elektrotxarangaren doinuak izanen dira. Emanaldia Foru plazan abiaraziko dute.

Argazkilari ibiltariak arbazuar guztiei argazkia atera nahi die

Gaurtik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, frontoian. Txanda hartu gabe

ARRUAZU

Argazki estudio ibiltaria izanen da asteburuan Arruazun, Nomad studio. Arruazuko Udalak herriar guztiak argazkia egitera joatera gonbidatu ditu, "horrela, aurten arbazuar guztien argaz-

kiak historiarako jasorik geldituko dira, betiko". Haur, gazte, heldu eta adinduak, erroldaturik dauden edo ez, herrian bizi diren eta ez diren arbazuarrek, guztiak daude gonbidatuta argazkiak egitera. Udalak jakinarazi due-

nez, "erretratua egitera joaten denak momentuan bertan papezko argazkia jasoko du, dohainik. Etxeren batek familia erretratua egin nahiko balu hamar euro pagatu beharko ditu. Papean jasotzeaz aparte, emandako e-posta helbidera formatu digitalean bidaliko da argazkia".

Nomad Studio batetik bestera doan autokarabana bat da. Aparkatu eta haren alde batean estudioa prestatzen dute, eta bestean, erakusketa. Eli Garmendia eta Carlos Pericas dira argazkilariak.



Arbazuarrek plazan. ARTXIBOA



1. AUTONOMIKOA GIZON.

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Arteak atseden jardunaldia zuen

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Lerínés	15
7	Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:30 Muskaria - Lagun Artea (Arguedas)

Lagun Arteak Arguedasen jokatu du Muskariak eta Lagun Arteak, puntu berdinekin, 7. postua dute jokoan.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Universidad de Navarra - Altsasu 4-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	15
10	Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

17:00 Altsasu - Mutilbera B (Dantzaleku)

Altsasu vs Mutilbera, etxean

Altsasuko neskek Mutilbera B taldearen kontra jokatu dute etxean.

FUTBOL PREFERENTEA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Rotxapea - Etxarri Aranatz 1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	15
10	Etxarri Aranatz	7

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri - San Miguel (San Donato)

Etxarrik bigarrena hartuko du

Sailkapenean bigarrena da Larragako San Miguel, eta partida lehiatua espero da.

FUTBOL ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Berriozar 2-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Rotxapea B	10
2	Altsasu	9

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:30 Rotxapea B - Altsasu (El Irati)

Altsasu liderraren kontra

Altsasu eta Rotxapea B taldeek lidergoa dute jokoan bihar Iruñean.

"Lesiotik atera berri naiz, eta sentsazio onak ditut"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Promozioko Lau eta Erdiko ligaxka ezin hobe hasi du etxarriarrak. Elordi irabazi eta gero, bihar, larunbata, Zabala izango du aurkari Labriten

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Larunbatean, sekulako erakustaldia egin zuen, Balmasedan, Joanes Bakaikoa Satrustegi pilotari etxarriarrak. Promozioko Lau eta Erdiko final laurdenetako ligaxkako 1. jardunaldian Aitor Elordi Txakartegi izan zuen aurkari, eta ikusgarri aritu zen etxarriarra, 5 tantotan utzi baitzuen mallabiarra. Sekulako garaipena izan zen, eta lehen puntua poltsikoan izanda, ligaxkako beste bi jardunaldietan maila ona eman nahi du Bakaikoak, finalerdietara sailkatu ahal izateko.

Kontentu egongo zara Balmasedako partidaren egindako lanarekin, ezta?

Bai, oso pozik nago. Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketako lehendabiziko partida zen, eta beti egoten dira zalantzak, ea partida ongi edo gaizki aterako den, eta halakoak. Beraz, garaipena lortuta oso pozik nago, eta horrela segitzeko gogoz.

Pilotarietok errespetu handia diozue txapelketa bateko lehen partidari. Nonbait, txapelketa ongi hasita, lasaitua hartzen duzue.

Bai, nik uste dut hori pilotari guztioi gertatzen zaigula. Entrenatzen ordu asko pasatzen ditugu, baina benetako maila partidaren eman behar da, eta hori ez da beti erraza izaten. Normalean bigarren eta hirugarren partidatara lasaiago joaten gara lehendabizikoa irabazita.

Belauneko lesio bat gainditu berri duzu. Zenbat denbora egon zara behar bezala osatzen?

Belauneko lesioa iragan martxoan izan nuen, eta lau hilabete behar izan ditut erabat osatzeko. Luze egin zait. Lesioa sendatuta, nire burua nahi baino mantsuago nabaritzen nuen kantxako entrenamenduetan. Defentsan aritzea gehiago kostatzen zitzaidan, baina beldurra gainditu dut, eta duela hilabete batetik erabat %100ean sen-



Joanes Bakaikoa belauneko lesiotik oso ongi osatu da. BAIKO

"ORAIN FINALERDIETARA SAILKATZEA DA HELBURUA; GERO, IKUSIKO DA"

titzen dut nire burua. Hilabete bat daramat ongi.

Zer nolako lesioa zen? Ebakuntza egin behar izan dizute?

Zorionez ez. Belauneko atzeko lotailua partzialki hautsita nuen. Erabat hautsita izango banu ebakuntza egin beharko lidateke, eta ebakuntza hori oso gogorra izaten da. Baina partzialki hautsita zegoenez, errehabilitazioa eginez erabat osatu da, eta oso pozik nago. Ez dit inolako minik ez eragozpenik ematen.

Txapelketa garaipen sendo horrekin hasteak aparteko konfiantza emango dizu. Une honetan nola sentitzen zara?

Nire burua ongi sentitzen dut, eta pozik nago, ea horrela segituzerik dudana. Lau eta Erdiko Txapelketa oso azkar jokatu da, beste modalitateak baino azkarragoa da, eta topera egon beharra dago, edozein ezusteko

gerta daitekeelako, bai onerako eta baita txarrerako ere. Hortaz, txapelketan buru belarri zentratuta egon beharra dago.

Zein da zure helburua Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketan?

Orain finalerdietara sailkatzea da helburua. Ligaxkan gaude, lehenengo partida irabazi dut eta bi gelditzen zaizkit, eta finalerdietarako sailkatzeko bi partida horietatik bat irabazi beharko dut, gutxienez. Beraz, orain partida horietan pentsatu beharra dut. Aurrera begira nire ilusioa finalean egotea litzateke, eta ahal izanez gero, txapela irabaztea, baina badakit edozeinen kontra partida zaila izango dudala, eta edozeinen kontra partida irabazi ala galdu dezakedala. Arerio guztiak dira gogorrak. **Hurrengo partida larunbatean jokatu duzu Labriten, zure frontoi kuttunean, Zabalaren kontra. Pandemiaren ondotik murrizketarik gabeko lehen jaialdia izango da, Buruz Burukoan Ezkurdiak Urrutikoetxearen kontra jokatu du, eta giro ederra espero da.**

Bai. Lesioaren ondotik Labriten jokatu dudana lehen partida izango da, eta oso pozik nago, Labriteko betiko giro eder hori

Ezkurdia eta Urruti, Labriten

Aurreko ostiralean Altsasuko Burunda pilotalekuan ikusizuna eman eta Unai Laso bederatzitan utzi eta gero, Lau eta Erdiko final laurdenetako ligaxkako 2. jardunaldian Joseba Ezkurdiak Mikel Urrutikoetxea izango du aurkari. Partida larunbatean jokatu da, Labriten, eta nahiz eta katedrak Ezkurdia faborito ikusi, Urrutikoetxea ez da edonolako arerioa izango. Biak irabaztetik datoz, eta lehia ikusgarria espero da.

berri bizitzeko gogotsu. Zabalen kontra partida zaila espero dut. Lau eta Erdian sakearekin min handia egiten da, eta hau edozein edozein izan daiteke, bai onerako eta bai txarrerako. Beraz, sakea dudanean tanto ilarak egiten saiatuko naiz, eta sakea ez dudanean, eusten.

Beti da garrantzitsua txanponak lehen sakea ematea, baina Lau eta Erdian eta Buruz Burukoan agian gehiago.

Bai, zalantzarik gabe, eta esango nuke Lau eta Erdian gehiago. Geroz eta azkarrago jokatu da, eta abiadura ematen duenak asko du irabazita.

Aurreko ostiralean, Altsasuko frontoiko jaialdian, pilota zaleen artean zure izena aipatu zen. Maila oso onean zaudela, eta Promozioko Lau eta Erdian zeresana emango duzula entzun zen. Zer deritoxo?

Ba ez dakit... egia esan entrenamenduetan gustura sentitzen naiz eta poztekoa da jendeak nitaz hori pentsatzea, baina hori gero kantxan erakutsi behar da. Askotan entrenamenduetako sentsazioak onak dira, baina gero partidaren ez da berdina izaten. Baina beno, nitaz hori esaten badute seinale ona izango da (kar, kar...).

Konfiantza ongi?

Bai, topera. Lesioa erabat gaindituta, orain gozatzen ari naiz.

Zorte on txapelketan.

Eskerrik asko. Ikusiko da txapelketa nola doan, baina lana ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz.

Osasuna Magna Xotak 1.400 bazkide baino gehiago ditu

ARETO FUTBOLA Talde berdeak bihar El Pozo Murcia izango du aurkari ligako 2. jardunaldian

Xotako presidente Tatono Arregik Navarra Television telebista katean azaldu duenez, klubak 1.400 bazkide baino gehiago ditu. "Oso pozik gaude. Bazkide horiek behar ditugu" azaldu du. Halaber, kluba Irurtzunen sortu zela, euren sorterrria mantentzen dutela baina Irurtzundik zabaldu dela eta egun, bazkideen %85 Iruñekoak eta Iruñerrikoak direla gaineratu zuen. "Harrobi proiektua gara, eta nafar oinarri horrek indartsuago egingo gaitu. Ez da kasualitatea" nabarmendu zuen.

Kirol arloari dagokionez, Osasuna Magna Xotak mailaz igo den Manzanares taldearekin bana berdinduta ekin zion 2021/2022 denboraldiari, Anaitasunan. Talde berdeak makina bat gol aukera izan zituen, baina betikoa, kontrako atean asmatzea kostatu egin zitzaion. "Irabaztea merezi genuen, eta pena da, baina ezin da huts egin genuena huts egin. Partida ixten jakin behar da" aitortu du Imanol Arregik. Bihar, larunbata, El Pozo Murcia izango du aurkari talde irurtzundarrak, 17:00etan, Murtzian. Partida zuzenean eskainiko dute LaLigaSportsTV eta La7 telebista kateak.



Roberto Martil, ostiraleko partidaren xota.

Harrobia

Gizonezkoen 3. mailan Aralar Mendik 3 eta 4 galdu zuen Kirol Sporten kontra eta Xotari 1 eta 2 irabazi zion Gazte Berriak taldeak. Bi taldeek Erriberan jokatu dute larunbatean, Aralar Mendik Ribera de Navarra lide-rraren kontra, 15:45ean, eta Xota Cintruenigoren kontra, 17:30ean.

Emakumezkoen senior mailako 1. multzoan Xotak 3 eta 2 galdu zuen Cintruenigoren kontra partida oso estuan. Igandean, 11:00etan, Irurtzungo taldeak Tallerese Recarte Murchante hartuko du Atakondoan.



IRATXO

Berriozar, txapelketa

BOTXA Urriaren 2an Elkarteen Arto Botxa Txapelketa jokatu zen Iratxon. Iratxo (Irurtzun), Txantrea, Antsoain eta Berriozar lehiatu ziren. Berriozarko Cesar Salonek eta Luis Lopezek finalean 15 eta 7 irabazi zieten Iratxoko Mikel Goldarazenari eta Floren Berazari. Hlurugarren Antsoaingo Eneko Ziaurritz eta Jabi Aienza izan ziren, eta laugarren Iratxoko Miguel Olló eta Tere Ilegi.

Onddo lasterketa indartsu itzuli da

ATLETISMOA Bihar, larunbata, XIII. Onddo Lasterketa jokatu da Altsasun. 10:30ean oinezko martxa abiatuko da, 11:00etan Onddo Lasterketa, eta 12:00etan 41. Ferietako Eskolarteko Krosa. Jasotakoa Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolara bideratuko da

Joan zen urteko etenaldiaren ondoren, bueltan da Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatutako Onddo Lasterketa. Bihar XIII. edizioa jokatu da, eta Altsasuko Foru Plazatik abiatuta, hiru proba prestatu dituzte: 10:30ean oinezkoen martxa hasiko da (7 km), 11:00etan Onddo Lasterketa (7 km) eta aurreko biak despeditu eta gero, 12:00etan neska-mutikoen 41. Ferietako Eskolarteko Krosa.

Onddoen Lasterketa proba ez lehiakorra da, Sakanako lasterketen artean proba herrikoiena. Antolakuntzak ez du korrikalarien denborarik hartzen, xedea atletismoa sustatzea delako: zapatilak jantzi eta goiz ederra pasatzea da helburua, lagun artean eta lehiakortasunik gabe, ondoak jaiotzen diren Altsasuko paraje zoragarrietan barna. Antolakuntzak gehienez 250 partaideko muga jarri du Onddo Lasterketako eta Oinezko Martxako partaideak batuta, eta kopuru horretara helduko direla uste dute antolakuntzatik. "Izena ematearen martxa ikusita, kopuru horretara iritsiko gara. Beraz, duela bi urte, azkeneko Onddo Lasterketan izan genuen partaidetza berdina egongo da" azaldu du Dantzaleku Sakanako Peio Bergarak.

Aldaketa gutxi

Ibilbidea betikoaren antzekoa izango da (7 km), hau da, Basoititik, San Pedrotik eta gertuko paraje zoragarrietatik barna, baina moldaketa batzuk egin behar izan dituzte, esaterako, Basoitxin, Dameroan haritz amerikarrak kendu behar izan dituztelako, eta lurra adarrez beteta dagoelako. "Ia antzekoa izango da, baina aldaera gutxi batzuk izango ditu. Oinezkoek norabide batean egingo dute bidea eta lasterketakoek kontrako norabidean, elkarri traba ez egiteko" azaldu du Bergarak.



Gure ingurune zoragarriaz gozatzeko aukera eskaintzen du Onddo Lasterketak.

"IZENA EMATEAREN MARTXA IKUSITA, 250 PARTAIDEETARA IRITSIKO GARA" PEIO BERGARA

Kamiseta

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak Onddo Lasterketarako kamiseta atera du, baina kopuru mugatua da. "Beraz, agortzen direnean ez da besterik egongo. Proban izena ematea izateak ez du bermatuko kamiseta jasotzea. Bukatzen direnean, akabo" gaineratu du klubeko beteranoak.

75 gaztetxo Dantzaleku eskolan

Izena eman eta dortsala jasotzerakoan ordaindutako 5 euroak Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko eskolara bideratuko dituztela azaldu dute. Aurten harrera bikaina izan du atletismo eskolak: 75 neska-mutikok eman dute izena, Sakanara guztitik etorriak, baita Araitatik ere. Eskolan lau monitore daude: Fermin Azkargorta, Javi Gasanz, Ekhi Olabide eta Aitor Mendoza. Gazteen eta nagusien atletismo taldea

ere martxan hastekoa da, Javi Gasanz eta Jokin Bereziarturen ardurapean.

41. Ferietako Eskolarteko Krosa

Oinezko martxa eta Onddo Lasterketa despeditu eta partaideen artean hiru ondo saski zozketatu eta gero, 41. Ferietako Eskolarteko Krosa hasiko da. Hau da, kategoria txikikoen lasterketak jokatu dira, Foru plaza irteera eta helmuga direlarik. Txikiek larunbatean bertan eman beharko dute izena, goizeko 9:00etatik aurrera, Foru plazan.



Eskolarteko Krosa 12:00etan hasiko da.

360 sakandar Bizikleta Egunaz gozatzeko prest

MENDIA Igandean 9:00etan Irurtzundik abiatuko dira 27. Sakanako Bizikleta Egunean izena eman duten txirindulariak eta 13:00ak aldera Altsasura iritsiko direla aurreikusten da. Egunak primerako harrera izan du

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Sakanako Bizikleta Eguna, Barranka, Burunda eta Aralar txirindularitza taldeen eta hainbat entitate eta babesleen laguntzarekin. Aurten 27. edizioa du, eta kirola eginez bizikleta gainean egun ederra pasatzea da asmoa. Egun polita

izaten da, parte hartze handia duena, eta aurten ere horrela izanen da. "360 pertonek eman dute izena, eta kontentu gaude, ekimenak harrera bikaina izan duelako" azaldu du Mank-eko kirol teknikaria den Amaia Gerrikagoitiak.

Izena eman dutenak 9:00etan aterako dira Irurtzundik, baina

autobusa 7:45ean abiatuko da Ziorditik Irurtzunera bidean, herriz herri izena eman duten partaideak eta euren bizikletak jasotzeko. Ibilbide osoan zehar bizikleta eta kamioia atzean joango dira, norbaitek martxa utzi nahi badu haiek jasotzeko.

Goizeko 11:00ak pasa aldera Lakuntzan geldialdia egingo dute,



Familiek, gazteek, hurrek... guztiek dute tokia Sakanako Bizikleta Egunean. ARTXIBOA

hamaiketarako, eta antolakuntzak freskagarriren bat banatuko die txirindulariei eta behin

martxan jarri eta gero, Altsasura 13:00ak pasa iritsiko direla aurreikusten da.

"Egun oso polita da niretako"

ALBERTO OCAÑA TADEO BARRANKA TXIRRINDULARITZA TALDEA

Noiz hasi zinen Barranka Txirindularitza Taldean?

Futbola utzi nuenean. Orduan hasi nintzen bizikletarekin serioago ibiltzen. Nire kabuz hasi nintzen, baina BTT taldea zegoela jakin bezain pronto, eurekin hasi nintzen. Orduan Burunda Txirindularitza Taldeko BTT sekzioa izena zuen taldeak, eta gero, Barranka izena hartu zuen. 20 urte inguru daramatzat taldean.

Igandean Sakanako Bizikleta Egunaren 27. edizioa izanen da. Zuk zenbatetan hartu duzu parte?

la gehienetan. BTT taldean hasi nintzenetik, guztietan.

Sakanako Bizikleta Egunean ibilbidearen martxa kontrolatzea zuen ardura da.

Bai. Hasteko, urtero zein ibilbide eginen dugun erabakitzen dugu, eta egunean bertan, ibilbidea kontrolatzen dugu: gutako batzuk aurrean goaz, eta gainontzekoak atzean, inor ibilbidetik ez ateratzeko eta partaideen segurtasuna bermatzeko. Horrez gain, bidegurutzeak kontrolatzen ditugu eta behar dena.

Zailtasun aldetik nolako martxa da?

Pertsona bakoitza bizikletan ibiltzen denaren arabera. Asko

ibiltzen ez direnendako ez dut esango zaila denik, baina paliza ederra hartzeko modukoa bai. Pentsa 9:00etan ateratzen garela eta 13:00ak aldera bukatzen dugula. Jende guztiak jarraitzeko moduko erritmoa du martxak, hori baita nahi duguna, ahalik eta jende gehienak parte hartzea, gaztetxoak bereziki. Ea zaletasuna sortzen zaien.

Aurten Irurtzunen hasi eta Altsasun despedituko da. Lau urtean behin Ergoienara igotzen zarete.

Bai. Ergoienara goazenean ibilbidea laburtzen dugu, bertara igotzea gogorragoa delako.

Iganderako parte hartze oso ona espero da.

Bai. Parte hartze kontuan eguraldia da garrantzitsuena. Aurreikuspenak txarrak badira, parte hartzea asko jaisten da, baina badirudi, momentuz, aurtengoak ez direla txarrak, eta jendea animatu da. Badirudi ekitaldietan parte hartzeko gogotsu gaudela. Bihar, larunbata, Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiarekin ibilbidea nola dagoen ikusiko dut, ea obraren bat edo ezusteren bat dagoen ikusteko, ibilbidea aldatu behar izanez gero jakinaren gainean egoteko.



"IGANDEAN EGURALDI ONA EGIN DEZALA, HORI DA GARRANTZITSUENA. JENDEA ANIMATU DADILA"

Askorendako erronka polita izango da Sakanako Bizikleta Eguna despeditzea.

Ibilbidean gaudenean sarritan entzuten diezu: "ea Altsasuraino iristen garen" eta halakoak. Gero helmugan ikusten dituzunean pentsatzen duzu: hara, helburua lortu dute.

Zuretao Bizikleta Eguna egun polita da?

Niretako bai. Batez ere neska-mutilei ilusio hori ikustea... oso polita da. Egia esan, guk saltsa ederra izaten dugu, bidegurutzeak direla, aurrealdea eta atzealdea kontrolatzea eta beste, baina nik disfrutatzen dut, egun hau gustuko dut.

Iganderako bizikleta doitzea eskatzen duzue, ezta?

Bai, bizpahiru egun lehenago bizikleta ongi errebisatu behar da, ongi dagoela ziurtatzeko, ez goiz horretan. Igandean martxan gertatzen diren zulaketak eta matxurak konponduko ditugu, baina egun horretan ez dugu bizikletaren mantenua egiten. Egia esan, normalean ez dira matxura gehiegi gertatzen. Urtearen arabera izaten da, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago.

Iganderako gogotsu?

Bai, oso. Eguraldi ona egin dezala, hori da garrantzitsuena. Gainontzekoa guk jarriko dugu. Sakandarrak Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzera animatzen ditut. Ez daitezela distantzien beldur izan; atzetik autobusa eta kamioia datoz, eta edozein unetan bizikletatik jaitsi eta autobusean igo daitezke, eta hobeto daudenean, atzera ere martxara batu, martxa bukaeran, esaterako. Askotan egiten da hori, lehertuta dauden neska-mutilekin. Bukaearako kilometro bat lehenago bizikleta hartu, eta aurrera. Izan ere, helmugara bizikletan iristea oso polita da. Helburua parte hartzea eta ongi pasatzea da.

Jaka-Villanua BTT martxa urriaren 31n

Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Barranka Txirindularitza Taldeak urtero mendi txirindularitza irteera antolatzen dute. Aurten urriaren 31n izango da, igandearrekin, eta Huescako Pirinioetan prestatutako irteera izanen da. Jaka eta Villanua lotu nahi dituzte, Donejakueko bidetik. Zailtasun maila ertaina du proposatu duten martxak, 38 kilometrokoa eta 384 metroko desnibelekoa. Ibilbide zirkularra izanen da: hau da, Jakatik aterata, Castiello de Jaka eta Villanua iritsiko dira, eta han buelta hartuko dute Jakara itzultzeko.

Irteeran 14 urtetik gorakoek eman dezakete izena urriaren 25era arte, Mank-eko Kirol Zerbitzuaren (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) edo 636 528 112 telefonoz. Prezioa: 10 euro. Autobusa 7:30ean abiatuko da Altsasuko autobus geltokitik. Han bazkalduko dute, eta arratsaldean itzuliko dira.

Pumori, 20 urte

MENDIA Igandean 20 urte beteko dira Sakana Pumori 2001 espedizioak Himalaian ezbeharrak izan zuenetik. Artieda-Larraza eta Arkauz-Rincón familiek bide luzea egin dute, eta Aritz eta Javi "irribarre batekin, maitasun handiarekin" gogoratzen dituztela diote

Maidar Betelu Ganboa

ETXARRI ARANATZ / LAKUNTZA

Sakana Pumori 2001 izena zuen 10 euskaldun ez osatutako mendi espedizioak, eta bertako kide ziren Aritz Artieda Larraza etxarriarra eta Javier Arkauz Rincón lakuntzarra. Himalaiako Pumori zazpi milakoa (7.161 m), *Mendiaren alaba*, igotzea zen euren ametsa. Eta ametsa gauzatu ari zirela, zoritxarra gurutzatu eta elur-jauzi baten ondorioz Pumoriko bidean geratu ziren Aritz eta Javi, Cesar Nieto, Beñat Arrue eta Iñaki Aiertzarekin batera. Euskal mendizaleen mendi istripurik larriena izan zen.

Urriaren 17an, igandean, 20 urte beteko dira. Ordutik bide luzea egin dute familiek, eta maitasun gogoratzen dituzte euren senitartekoak. Hala azaldu dute Idoia Artieda Larrazak eta Estibaliz Arkauz Rinconek. Gertatutakoari aurre egiteko egindako bide gogorraz aritu dira, barren-barrenetik.

ARTIEDA-LARRAZATARRAK, HISTORIA ERREPIKATZEN DA

Etxarri Aranazko Artieda-Larraza familia mendizalea izan da betidanik. Idoia zen anaia-arrebetan nagusia. Hurrena Aritz zen, eta txikiena Onditz. 1987an gertatu zitzaizen lehen ezbeharrak. Idoiaren osabak, Jesus Mari Larrazak, mendi istripua izan zuen Pico Comunismen (7.495 m). "Oso gogorra izan zen. Mendizale sakandar bat atzerrian, Himalaia inguruan, hiltzen zen lehenengo kasua izan zen. Himalaian norbait hiltzen denean gorpua han gelditzera ohituta gaude, baina kasu honetan osaba ekarri ahal izan genuen" azaldu du Idoiak.

Topikoak

Hala ere, mendizaleen familia izaten jarraitu zuten. "Jendeak galdetzen du mendizalea bazara eta inguruko jendea mendian hiltzen bazaizu, ez al diozun mendiari gorrotorik hartzen. Eta ez. Ez da hala, mendiari lotuta ja-

rraitu genuelako" gaineratu du Idoiak. Aritzek zaletasun ikaragarria zuen. "Pirinioetan eta Alpeetan ibili zen, Andeetan izan zen eta 18 urte betetzeko zain egon zen Alaskara joateko. Mendizale petoa zen, eta familian naturaltasunez hartu genuen. Osabarena gertatu arren, gurasoek ez zioten inolako frenorik jarri" dio Idoiak.

Sakana Pumori 2001 espedizioko kideak ziren Aritz eta Javi. "Sakanan oihartzun handia izan zuen, izan ere Himalaiara joaten lehendabizikoa izango zen. Bi mutiko sakandar gazte, baina esperientzia handiarekin, Alpeetan eta Andeetan ibiliak, Himalaia zuten helmuga. Prestakuntza lanetan lagundu genien. Oraindik kamiseta koloretsu haiek ditut buruan" gogoratzen du Idoiak. Baina ezbeharrak gertatu ziren. Bigarren tragedia familian. "Izan zen: historia errepikatzen da. Baina desberdintasun bat zeukan. Kasu honetan, gorpua han gelditu zen. Ondorio batera ailegatu naiz: istripu bidezko doluak dira gogorrenak, abisatu gabekoak, agurtzeko aukerarik ematen ez dutenak. Eta gorpurik ez badago, are gogorragoa da. Hori oso argi dut" nabarmendu du.

Egun haiek oso gogorrak izan ziren. "Albistea komunikabideen bidez jakin genuen, eta presioa eta zurrunbiloa ikaragarriak izan ziren. Morboaren kontu hori sufritu genuen hasieran, komunikabide batzuen aldetik galderak izugarriak zirelako" dio.

Dolua

Ordutik, bide luzea dago. "20 urte badira, ez dira alferrik pasatu. Askoz ere lasaiago gaude" dio Idoiak. Doluaren prozesua ere

"ANAIA GOGORATZEAN LEHEN PENTSAERA MAITASUNA DA, KARIÑO HORI" IDOIA ARTIEDA

gogorra izan zen. Euren oso garrantzitsua izan zen Pumorira joatea. "Hiru urtez jarraian joan ginen. Heriotzaren lehenengo urteurrenean espedizioko kide batzuk, Aizarnako senitartekoak eta ni joan ginen. Handik urte batera gurasoak, Onditz eta ni neu, laurok, Iñaki Ochoa de Olzarekin eta bere neska-lagunarekin joan ginen, Iñaki Aritzen laguna zelako. Eta hurrengo urtean gurasoak eta ahizpa joan ziren" azaldu du. Ordutik ez dira itzuli. "Denok diogu itzuliko ginatekeela, baina lana, osasuna eta beste direla, ez gara itzuli. 8 urte dituen ilobak esaten du hara joan nahi duela. Pala bat hartuta joango dela eta osaba elurpetik aterako duela" kontatu du.

Gorpua hemen balute beste dolu mota bat izango luketela uste du Idoiak. "Beraiek han daude, horrenbeste maite zuten mendian, baina, a!... horrek ez zaitu guztiz asetzen. Nik urte askoan anaia Himalaiatik etorri egiten zela amets egiten nuen. Jada ez, baina lehen bai" aipatu du. "Mendiko erreportaje askotan zortzimilako askotako igoerak narrazen direnean, mendizale askok bideko erreferentziak bidean aurkitzen dituzten gorpuen arabera markatzen dituzte. Eta jakitea horrelako bat zurea dela, oso gogorra egiten zait. Gure inguruan asko dira mendian hil direnak" aitortu du.

Gertatutakoarekin bizitzen ikasi du familiak. "Bizitza normalerako, ez digu eragiten. Anaia gogoratzean lehendabiziko pentsaera maitasuna da. Kariño hori. Anaia presente dugu, eta sarritan hitz egiten dugu Aritzez, normaltasunez, eta bere argazki pila dauzkagu, baina aitortu behar dizut berari buruz hain sakon hitz egiteak eragin didala, uste baino gehiago. Azken finean, gure biografia da" dio Idoiak. "Mendi istripuren bat denean, zera komentatzen dugu: "Hara! Mendian hil ziren, mendian hil dira eta hilko dira. Bizilegea".



Sakana Pumori 2001 espedizioa bost kide, Javi Arkauz Rincón eta Aritz Artieda Larraza tartean.

Oroigarriak

Urteurrena izanagatik ez omen dute okerrago pasatzen. "Niri berdina zait urriaren 17a edo beste edozein egun izatea. Anaia egunero gogoratzen dugu" dio. Igandean San Miguclera joango dira. "Urtero joaten gara, eta gehiago edo gutxiago familia guztiak elkartzen gara. Familiekin elkartzea gustatzen zait, konplizitate bat dugulako" dio.

Aralarko santutegiaren atzealdean dago zendutako bost mendizaleen aldeko oroigarria: eguzkilorea, 5 zuhaitz eta Nepaleko otoitz banderak. "Familiekin elkarrekin agur bat egin nahi genuen eta bostek San Migelen egitea erabaki genuen. Pentsatzen dut

"PUMORIRA JOATEA OSO GARRANTZITSUA IZAN ZEN; HIRU ALDIZ JOAN GINEN" IDOIA ARTIEDA

tokia sinbolikoa delako. Osasuna dela eta gurasoak igo ezin direnez, ni tarteka joaten naiz. Baita Ondatzera ere" dio.

Berriazpian, Ondatzen, beste oroigarri bat dago. Bi mutiko elkar besarkatuta daude, Aritz eta Javi. Lakuntzan ere beste oroigarri bat dago, eskua irudikatzen duena. Baita Euskal Herriko beste txokoetan ere. Garrantzitsuak dira familiendako.

Oroitzapenak

Anaia "alaia, langilea, txintxo, pertsona ona, esfortzatu, noble..." zela gogoratzen du. "Eta oroitzapen horrekin geratzen gara. Lehengoan, lagun batek esaten zidan anaiarekin asko gogoratzen zela. Eta hori oso polita da, gertukoak ere berarekin gogoratzea. Irribarre batekin gogoratzen dugu. Sarritan pentsatzen dut, nola disfrutatuko lukeen ilobekin. Egunero gogoratzen gara. Segundo bat, baina egunero" nabarmendu du.



Eskuinetik hasita lehena Aritz da, eta bigarrena Javi. UTZITAKOIA

ARKAUZ-RINCÓNDARREN UNE GOGORRENAK

Arkauz-Rincon etxean lau anai-arrebetan helduena Edurne da, Estibaliz hurrena, Iñaki hirugarrena eta Javi, etxeko txikia zen. Estibalizek 2001 urte oso gogoan du. "Abuztuan Javi eta Aritz Perutik itzuli ziren, Andeetatik, eta Pumoriko espedizioa azken prestaketei ekin zieten. Pumorira joan baino aste pare bat lehena senitarteko guztiak bazkaltzera bildu ginen; argazki oso politak ditut, oroitzapen ederra. Eta, bat-batean bizitza apurtu zen, erabat" azaldu du.

Une gogorrak izan ziren. "Hasteko, irrati bidez izan genuen gertatutakoaren berri. Amak deitu eta esan zidan Javi hil edo desagertu egin zela, hori esan zutela irratian. Bi egun eman genituen Javi istripuan zundatukoren bat zen edo ez jakin gabe, espedizioan beste Xabier bat zegoelako. Hasieran bera zela, gero ez... Nepaletik iristen ziren be-

riak urriak ziren. Ordu aldaketa handia da, gertatu zena zekitenak goian, altueran zeuden eta haiekin harremanetan jartzea zaila zen, eta ez zeuden gaur egungo aurrerapenak. Javi zundutako bat zela egiaztatu ziguten, eta, ondoren, gorpuak berreskuratzeo erreskate saiakera bat egin behar zela. Zenbait egun pasatu ziren gorpuak bertan geratuko zirela konfirmatu arte" kontatu du Estik.

Berak ez zuen anaiaren heriotza onartzen. "Mendira joan izan naiz beti, baina, hala ere, ez nuen ulertzen. Esaten zidatena sinistu beharra nuela, anaia han geratu zela eta ez nuela inoiz gehiago ikusiko. Eta hori onartzea oso

"ANAIAREN HERIOTZA GAINDITZEKO EZINBESTEKOA IZAN ZEN PUMORIKO BIDAIA" ESTIBALIZ ARKAUZ

zaila da. Norbait hiltzen denean gorpuak beilatzen da, lurperatu eta orduan hasten da dolu prozesua. Baina kasu honetan, nola?" aitortzen du.

Omenaldiak etorri ziren, bata bestearen atzetik. Ia astebururo San Migelera igotzen ziren gurasoekin, oroigarria. "Ez zigula batere onik egiten konturatu ginenera arte. Eta astero ez ginel gehiago igoko erabaki genuen, une puntualetan izan ezik. Javi berdin gogoratuko genuela etxean. Nire kasuan, husten ari nintzen, depresioan barneratzen. Eta horren aurrean, moztu duzu edo tristuraren putzuan hondoratzen zara. Argi eta garbi. Eta moztu egin genuen" dio.

Pumoriko omenaldi ederra

Anaiaren heriotza onartzeko eta gainditzeko ezinbestekoa izan zen hiru anai-arrebek eta Estibalizen senar Jexusek istripua gertatu eta bi urtera Pumorira egindako bidaia. "2003ko urriaren 17an Pumorin geunden. Bidaia oso polita egin genuen, maitasunez gogoratzen dudana. Mari Abregorengana jo nuen laguntza esker; hark Himalaiara joan behar zuen bikote batekin, Koldo eta Barbararekin jarri gintuen harremanetan. Bere garaian Koldok Miriam (Tafallako alpinista bat) zendu zen tokira lagundu zituen bere gurasoak, eta guri Pumorira laguntzeko prest azaldu zen. Gero Berako mutil bat, Juanma, batu zitzaigun" kontatu du. Nueva Delhi eta Taj Mahal bisitatu eta gero, hegazkinez Luklara joan eta handik oinezko etapak egin zituzten, Pumoriko kanpaleku nagusiraino.

"Esperientzia gogorra izan zen. Pumori aurrean nuela, shocka izan nuen, baina mediku batzuk lagundu eta medikazioa jarri zidaten, eta oinarritzko kanpalekura ongi heltzea lortu nuen. Pumorik begiak zabaldu zizkidan, eta orduan ulertu nuen guztia. Horrela, Javi dagoen toki eder eta paregabe horretan agurtu genuen anaia. Omenaldi txikia egin genion. Nik eskutitza idatzi nion, anaiak eta ahizpak ere despeditu zuten, eta denbora luze bildutako lore lehorrak utzi genituen bertan. Guk ez genekien, baina taldekideek bideoz grabatu gintuzten. Gero, bideoa etxean ikusi genuenean guztiz hunkitu ginen, gu besarkatuta geunden une horretan Koldok *Ikusi Mendizaleak* jo zuelako armonika-

rekin. Agur hura guretzat gaxoa izan zen, konponbidea. Bidaia guztia bideoz grabatu genuen, gurasoek ere ikusi zuten -bakarrik ikusten dute beti, konpainiarik gabe- eta bidaia hura ere euren mugarria izan zen: lehena eta geroa aldatu zuena. Eta ordutik, beste bizitza bati ekin genion: anaia non dagoen ikusi genuen, bere heriotza barneratu genuen, agur esan genion, eta hortik aurrera gu bizirik geundela eta aurrera jarraitu behar genuela jabetu ginen. Horrela gainditu genuen haren heriotza" gaineratu du Estik.

Pumoritik bueltan, hondoa jo zuen, eta orduan hasi zuen bere dolu. "Psikologoek esan zidaten bi urtez doluari eutsi egin niola, eta hemendik aurrera hasiko nintzela anaiaren heriotza gainditzeko. Eta horrela izan zen" azaldu du.

Poztasunez

Ordutik anaia poztasunez gogoratzen duela nabarmentzen du. "Une oso-oso puntualetan izan ezik, nire dut negar egiten anaiaz hitz egitean. Nahikoa negar egin genuen. Egutero gogoratzen naiz berarekin, eta amets asko ditut, bereziki txikia zeneko garaioak, baina alaitasunarekin gogoratzen dut, maitasun handiz. Kirolari petoa zen. Pilotan eta atletismoan aritu zen, ondoren txirrindulari izan zen, eta bizikleta utzi zuenean mendiak guztiz harrapatu zuen. Beti irribarrez zegoen, eta irribarre berezi bat zuen. Berezia zen, ezberdina. Beste molde batekoa" gogoan du.

Bere seme-alabek eta ilobek osaba zena oso presente dute. "Bere osabaren bizitza lasai asko konta dezakete, Javiz naturaltasun osoz aritzen garelako. Baita gurasoek ere, eta hori oso garrantzitsua da, semeaz hitz egiten daudenean ongi egotea. Gurean anaiaz hitz egitea ez da tabua. Etxean erreferente da: nahiz eta fisikoki ez egon, gurekin egoten jarraitzen du. Sarritan pentsatzen dugu zein gustura egongo litzatekeen ilobak ikusten, kirolariak baitira. Nik nire semeari Javiren gauza asko ikusten dizkiot" dio.

"ATSEDEN HARTU AHAL DUTEN MUNDUKO TOKIRIK POLITENEAN DAUDE" ESTIBALIZ ARKAUZ

Esti astebururo doa mendira. "Aralarrera noanean San Migelko monolitotik pasatzen naiz. Gure Aita erreztatu, Pirinioetara begiratu eta "datorren astera arte, anaia" esaten dut, baina poztasunez. Eta Beriainera noanean, Ondatzetik pasatzen naiz. Amak Lakuntzako monolitoko loreontziak zaintzen ditu, eta aurreko egunean, esaterako, ilobak txirrindularitza lasterketa irabazi zuen, eta bertan utzi zuen lore sorta" aipatu du.

Igandean 20 urte beteko dira, baina arkauztarrendako urriak 17 eta gainontzeko egun guztiak berdinak dira. "Agian barrenak gehiago mugitzen zaizkizu, baina nik egutero gogoratzen dut anaia" dio. Alabak taekwondo txapelketa du egun horretan, eta Estik ezingo du hemen egon. "Alabari esan diot egun horrek zortea emango diola, osabak gidatuko duelako" gaineratzen du, irribarrez. Gurasoak kanpoan daude, eta ziurrenik Javiri meza aterako diotela uste du Estik.

20 urteren ondoren oraindik jendeak anaia gogoratzea "oso polita da, pasada bat". "Pentsatzen dut, baina zer nolako arrastoa utzi duen. Lakuntzako etxe gehienetan nire anaiaren argazki bat dago, eta gazteenek ere badakite zein zen" dio. Zabalarte Taldeak Sakanako Trail Estazioan jasotako Lakuntza-Aralar Traila aurkeztuko du aurki, urriko azken asteburuan ziurrenik, eta ekitaldian Javirekin oroitzapen txikia izan nahi dute. Poza ematen die.

Tokatu zaienarekin bizitzen ikastea lortu dute arkauztarrek. "Denbora askoan oso triste egon ginen, baina gertatutakoa ulertzea eta barneratzea lortu genuen, behar bezala kanalizatu dugu eta aurrera, bizitzak jarraitzen duelako" azpimarratzen du.

Munduko tokirik politenean

Estik dio munduko tokirik politenean daudela anaia eta taldekideak. "Pumoriren edertasuna apartekoa da. Ez dakizu zeinen polita den, benetan. Zer esango dizut, nik nahiago dut anaia bertan egotea. Gorpuak ezin zituztela erreskatatu esan zigutenean, ez ditut ahazteko aitak amari esan zizkion hitzak: "izan ahal duten manturik txuriena han dute". Horiek dira entzun ditudan hitzik politenak. Egia delako, atsedeen hartu ahal duten tokirik politenean daudelako" nabarmentu du Estik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 15

ARRUAZU Arbuzar guztiei
argazkia ateratzeko ekimena.
10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: Ping
pong txapelketa.
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta
gazte gunean.

IRURTZUN Irurtzungo antzerki
tailerraren *Ver, Oler, Escuchar*
antzezlaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ *Kirolak*
dantza ikuskizuna eta *Aizkora*
dokumentalaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Puro Relajo taldearen
kontzertua.

19:00etan (sarrerak agortuta) eta
21:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU X. Arte Azokaren
mustutzea. DJ Txenenkien.
19:30ean, lortia kultur gunearen
erakusketa gelan.

LARUNBATA 16

LAKUNTZA Pintura aire librean
lehiaketa.
09:00etan, izena ematea; 17:30ean,
lanen entrega; udaletxean.

ARRUAZU Arbuzar guztiei
argazkia ateratzeko ekimena.
10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara, plazan.

ALTSASU Onddo lasterketa.
Oinezkoen martxa, lasterketa
eta haurren eskolarteko krosa.
Dantzaleku Sakana Atletismo
Klubak antolatuta.
10:30ean, martxa; 11:00etan,
lasterketa; 12:00etan
eskolartekoa, Foru plazatik.

ALTSASU Udazkeneko azoka.
Elikagaien eta artisau azoka.
10:00etatik 15:00etara, lortia

zabalgunean eta Baratzekobiden.

IRURTZUN Pikuxar elkartearen
mustutzea.
12:30etik aurrera, elkartearen.

ALTSASU Altsasuko feriak.
Bertsu poteoa eta bazkaria.
12:30etik aurrera, plazatik eta
frontoian.

ALTSASU Altsasuko feriak.
Txaranga eta bajadika.
16:30etik aurrera, plazatik.

ALTSASU Gazte agenda:
Merienda eta proiektzioa.
17:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Irurtzungo antzerki
tailerraren *Ver, Oler, Escuchar*
antzezlaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Altsasuko feriak.
Elektroa.
Altsasuko peñak antolatuta.
22:30ean, plazatik.

IGANDEA 17

ALTSASU Altsasuko



ALTSASU X. Arte Azoka.
Urriaren 13tik azaroaren 4ra.
Astelehenetik ostiralera 17:30etik
20:00etara eta igandetan
16:30etik 19:30era. lortia kultur
gunearen erakusketa gelan.

Mendigoizaleen XXXV. Altsasuko
Feretako Argazki Rallya.
08:00etatik aurrera izena ematea;
11:00etan, argazkien entrega;
12:00etan, hamaiketako; egoitzan.

SAKANA Sakanako
bizikleta eguna. Sakanako
Mankomunitateak antolatuta.
09:00etatik aurrera, Irurtzundik
Altsasuraino.

ARRUAZU Arbuzar guztiei
argazkia ateratzeko ekimena.
10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara, plazan.

ALTSASU Arte Azoka kalean.
10:30etik 14:00etara, lortian.

ALTSASU Altsasuko erraldoiak.
11:30etik aurrera, Intxostiapunta
gimnasiotik.

ALTSASU Altsasuko
Mendigoizaleen XXXV. Altsasuko
Feretako Argazki Rallya.
Proiektzioa eta sari banaketa.
13:30etik aurrera, Gure Etxean.

OLAZI Titiriguri konpainiaren
Oilar bat zure teiatuan antzezlana.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Irurtzungo antzerki
tailerraren *Ver, Oler, Escuchar*
antzezlaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 18

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
mobilizazioa. Bankuetan
aurrez aurreko arreta zerbitzua
eskatzeko ibilaldia.
12:00etan, Zumalakarregi plazatik.

ASTEAZKENA 20

SAKANA ERA eskola: Haurrak

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Benedetta gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Igandea 17: 19:30

Filmoteka Nafarroan: *Cholitas*
film dokumentalaren emanaldia.
Pablo Iraburu zuzendariaren
solasaldia.
Astelehena 18: 19:00

Maixabel gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 21: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

*Las cosas que decimos, las cosas
que hacemos* zineforuma
Osteguna 21: 19:00

euskarazko irakurketara
zaletzeko gako eta dinamikak
familientzat. Hizlaria: Intza Alkain.
17:00etan, youtube.com/c/
eranafarroa.

ALTSASU Aurkezpena:
Altsasuko ahozko ondarea.
Labrit multimediarren eskutik.
Altsasuko Udalak antolatuta.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kafe konpundu.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ZORION AGURRAK



June Etxegoien Zelaia
Zorionak maitia, 9
urte! Zure amona eta
aitonaren partez egun
zorionsua opa dizugu.
Muxu bat.

BADATOR

SAKANAKO GIDA 2022

ZURE ESKAERA 2021 EKO URRIAREN 28A BAINO LEHEN EGITEN BADUZU 2022 ONLINE DOAN

SAKANAKO GIDA KOMERTZIALEAN AGERTU NAHI BADUZU:
948 564 275 | 661 523 245 | publi@guaixe.eus

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Ivan Imaz Iñurritegi

Agur esan dizugu, baina,
gure bihotzetan bizi zara

Zure familia

Etxarri Aranzen, 2021eko urriaren 11n

OROIGARRIA



Aritz Artieda Larraza

(2001-10-17)

Jesus Mari Larraza Lakuntza

(1987-07-17)

Gogoan zaituztegu Artieda-Larraza etxekook.
Gure bihotzetan zaudete

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Lakuntzako Udalaren enkante bidezko salmenta: Uriz kaleko bi partzela salgai, lizitazio-iragarkia irailaren 30eko NAO 229- zenbakian argitaratu da. Proposamenak urriaren 28ra arte egin daitezke.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Lakuntzako gazte txokoan hiru begiraleren kontratazioarako deialdia: Lan poltsa osatuko da ezarritako baldintzak bete eta egindako hautapen probak gianditu dituzten izengaiekin. Kontratu urritik maiatzera arte izango da, begiraleek txandaka lan egingo dute, bikoteka eta txandakatu. Lanpostuak C mailako ordainsaria izango du. Euskarazko nahitaezko hizkuntza eskakizuna C1 (ahozkoa). Parte hartu ahal izateko Altsasuko Enplegu Bulegoan izena eman behar da, enplegu-eskatzaile gisa edo enplegu hobekuntzan. Eskabideak aurkezteko epea urriaren 18ko 14:00etan amaitzen da.

Etxarri Aranazko Danbolintxulo haur ludotekarako lan poltsa: Ikasturtean zehar sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko. EGA edo baliokidea izatea eskatzen da eta Haur Hezkuntzako goi zikloa edo gradua izatea baloratuko da. Interesa baduzu bidali zure curriculum-a danbolintxulo@ludoteka@gmail.com helbidera.

Sakanako Mankomunitateko kirol monitorea, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan poltsa: 18 urte beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarrizko kirol titulazioa izatea demigorrezkoak dira. Izena eman kirolak@sakana-mank.com postara idatziz edo 948 464 866 telefonora deituz.

IKASTAROAK

Altsasun mikologia hasitapenak tailerra (genero arruntak): Praktikaren bitartez, zizak eta haien generoak ezberdintzeko funtsezkoak diren ezaugarriak ikasteko helburuarekin Altsasuko mikologia elkarteak antolatutako tailerra. Altsasuko Gure Etxean, urriaren 23an, larunbata, 18:00etatik 19:30era. Sarrera mugatua denez, aurreinskripzioa egitea beharrezkoa da, horretarako zure izen abizenak eta telefonoa mikologia@altsasua@gmail.com helbidera bidali edo Iortia Kultur gunean izena eman.

Etxarri Aranazko Udalak 0-2 urteko haurrek Kattukan eskolaratzeko dirulaguntza: Eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 8an amaituko da.

OHARRAK

Urriaren 23an, Sarek, Donostian deitutako manifestaziora joateko autobusak: Izena emateko Altsasun (ohiko lekuetan), Bakaikun (Elkartean), Etxarri (Xapateron, Leku Onan eta Kaxetan eta Lakuntzan (Apurren) zerrendak jarri dira, irtee-

ra orduak zehaztuko dira. Manifestazioa Donostiako Antiguako tuneletik abiatuko da, 17:00etan.

Irurtzunen euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia: 2020ko irailetik 2021eko abuztura egindako euskararazko edozein ikastaro motetara bideratua. 16 urte gora izatea eta Irurtzunen erroldatuak egotea derri-gorrezkoa da. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira 2021eko urriaren 31a arte. Epea luzaezina izanen da. Informazio gehiago udal-txean bertan galdetuz.

Etxarri Aranazko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Odol emateak Arbuzun: Urriaren 20an, 17:00etatik 20:30ra. Animatu.

Etxarri Aranazko Udalaren oharra: 2021eko 1. sei hilabeteko ura ordaintzeko borondatezko epea aurtengo azaroaren 4an bukatuko da. Ordainketak helbideratua ditzuztenei, azaroaren 4an kargatuko zaie beren kontuetan eta gainerakoek herriko banketxe batean ordaindu beharko dute. Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

ESKELA



Iván Imaz Iñurritegi

(Etxarri Aranzen hil zen 2021eko urriaren 11n, 50 urte zituela)

Segi dantzan, zauden tokian zaudela

1971eko zure kintoen agur maitekor bat

Etxarri Aranatz

JAIOTZAK

- **Oneka Lur Monton Sevilla**, urriaren 7an Etxarri Aranzen
- **Grace Bunyewah Obeng**, urriaren 7an Altsasun
- **Alai Leza Vera**, urriaren 7an Altsasun
- **Laila Gutierrez Barreira**, urriaren 9an Altsasun

HERIOTZAK

- **Epifanio Cuadrado Cuadrado**, urriaren 6an Irurtzunen
- **Jesus Solas Donazar**, urriaren 7an Olaztin
- **Ivan Imaz Iñurritegi**, urriaren 11n Etxarri Aranzen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Gruporache

Gruporache

www.tanatoriosirache.es

Eneko Lazkoz Martinez Berriozarko finalaurrekorako

Tafallako laurdenetan nagusitu zen. Oier Lakuntza Irigoienek 300,5 puntu lortu zituen Zangozan

SAKANA

Bihar, urriak 16, larunbata, 17:30ean, jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren laugarren eta azken final laurdena, Doneztebeko zineman, eta bertan Ekain Alegre Gil ariko da. Altsasuarren lehenengo txapelketa izanen da, eta helburua "aurkeztea eta ea zer gertatzen den" ikustea zela azaldu du **BELEIXE IRRATIAN** egindako elkarrizketan (guaixe.eus webgunean entzungai). Julio Soto Ezkurdia txapeldunarekin jokatzea egokitu zaio eta "zorrotzagoa" izateko laguntzen duela esan du Alegrek.

Aurreko asteburuan bi final laurden jokatu ziren, Tafallan eta Zangozan, eta Tafallako irabazlea Eneko Lazkoz etxarriarra izan zen eta zuzenean finalaurrekoetara sailkatu da. Berriozarko finalaurrekoan ariko da azaroaren 6an. Zangozan Joanes Illarregi Marzol nagusitu zen eta finalaurrekoetarako txartela lortu zuen. Oier Lakuntza urdiaindarrak aritu zen eta 300,5 puntu lortu zituen. Final laurdenen fasea amaitutakoan jakingo dute finalaurrekoetan izango diren ala ez.



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Udazkeneko orriak

Liburutegian paseotoxa eman eta GUAIXEko txoko honetan ZER IDATZI pentsatzen ari nintzela, liburu askorekin egin dut topo. Liburutegian ibiltzea munduan zehar bidaiatzea bezalako esperientzia da. Mendiak, historia, izarrak, ilargia, emakume interesgarriak, paisaia ikusgarriak ... eta garrantzitsuena, bizipen ahaztezinak. Horrela sentitzen gara irakurleok liburu bat irakurtzen dugunean, eta are gehiago, pentsarazten dizun liburu bat irakurtzen duzunean.

Liburu horietako batzuk aurkeztuko dizkizuet:

• **Herriak ez du barkatuko!** Irati Goikoetxea idazlearena. Euskal Herriko gatazkak sorturiko sentimenduak eta kontraesanak oso ongi islatzen ditu. Modu ederrean idazten du Irati Goikoetxeak eta gozamina izan da bere liburuak irakurtzea.

• **Ez dakit zertaz ari zaren** Ana Malagon idazle donostiarrarena. Gertaera dramatikoetara hurbiltzen

gaitu liburuak eta ironiak presentzia izugarria dauka.

Gaztelaniaz, berriz, hiru idazle aipatuko dizkizuet: bata, bizitza filosofiari buruzko gogoetak egiten dituen, eta beste biak fikzio erraza eta irakurlea erabat erakartzen dutenak.

• **Eloy Morenoren edozein liburu**, irakurtzeko gomendagarria iruditzen zait. Liburu bakoitzak gai bat jorratzen du, eta gaur egungo bizimodua kolokan jartzen du.

• **Mikel Santiagoren liburuak** oso gustura irakurtzen dira. Nobela beltza dira, eta hasiera hasieratik liburuei itsatsita sentitzen zara. Gehiegi pentsatu gabe irakurtzeko.

• **Lucinda Riley idazlearen liburuak**. Ziordiko irakurleei izugarri gustatzen zaizkie eta gainera azken aldiko erabiltzaileen eskakizunak betetzen dituzte: politikak eta errazak.

Aukerak hor dituzue, baina jakin ezazue horiek liburutegiko bidaiaren zati txiki-txiki bat besterik ez direla!

Meta antzerkia ia bi urteren ondoren

Irurtzungo antzerki tailerrak 'Ver, Oler, Escuchar' antzezlanarekin eskainiko du asteburuan. 2020ko martxoan estreinatu behar zuten, baina pandemiaren eraginez atzeratu behar izan zuten

IRURTZUN

Antzoki zahar bat bota behar dute. Barruan zenbait etxegabe bizi dira. On Jose antzerkiaren zale amorratu da, eta ezin du onartu bota nahi izatea. Horrela, antzokian bizi direnak Victor Hugoren *Nuestra Señora de Paris* antzezteko konbentzitzen ditu. *Ver, Oler, Escuchar* Albert Boadella i Oncins antzerkigilearen lanean inspiratutako istorioa da, eta asteburuan Irurtzungo Antzerki Tailerrak oholtzaratuko du, Angel Sagues Irigoyenen gidaritzapean. Sagues tailerraren zuzendaria da, eta lanaren dramaturgia egin du. Bi urte ondoren, antzerki tailerra agertokira itzuliko da eta hirutan egingo du: gaur, ostiralean; bihar, larunbatean, eta etzi, igandean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean. Sarrerak 5 eurotan eskura daitezke kultur etxean eta udaletxean.

Irurtzungo Antzerki Tailerrak 2020ko martxoan mustu behar zuten *Ver, Oler, Escuchar* antzezlanarekin. Alarma egoera ezarri zuten asteburu horretan bertan. Emanaldia, beste hainbat bezala, bertan behera gelditu zen. Antzerki tailerra aurreko ikasturtearen hasieran lanera itzuli zen,



Irurtzungo antzerki tailerraren 'Ver, Oler, Escuchar' antzezlanarekin. UTZITAKOIA

eta antzezlanarekin jarraitu zuten. Baina iazko pandemiaren egoera zela eta, ezin izan zuten estreinatu. Oraingoan, bai. Ia bi urte behar izan dituzte meta teatroaren errepresentazioa egiteko, eta antzezlanarekin bezala, Irurtzungo Antzerki Tailerreko kideak ilusio handiarekin igoko dira kultur etxeko eszenatokira.

Antzerkiaren aldarrikapena sustatzen duen lan bat da *Ver, Oler, Escuchar*, poetikoa eta, batez ere, dibertigarria, Angel Sa-

guesek hedabide batean egindako adierazpenen arabera. Irurtzungo publikoak antzerkira joatera animatzeko, eta bertan ongi pasatzeko.

Txus Abadek, Maria Eugenia Barrosok, Julian Cuevasek, Beatriz de Estebanek, Miguel Eslavak, Goio Fernandezek, José Ramón Irurek, Paulina Jordanobak, Maika Lomillosek, Lucia Muñozek, Tere Otxoak, Andoni Urizek eta Ariane Sancho osatzen dute Irurtzungo antzerki tailerra.

Herri kiroletan oinarritutako dantza

Laida Aldaz dantzaria lehenengo aldiz ariko da Etxarri Aranazko kultur etxean gaur, urriak 15, 19:00etan

ETXARRI ARANATZ

Apirilan Laida Aldaz Arrieta artista etxarriarrak *Kirolak* dantza ikuskizuna eskaini behar zuten etxean, herriko kultur etxean. Etxarri ariko zen lehenengo aldia izan behar zen, baina COVID-19 birusaren kutsatze kasuek gora egin zuten, eta

Etxarri Aranatz perimetralki itxi behar izan zuten. Ikuskizuna bertan behera gelditu zen, gaur arte. Aldazek herri kiroletan oinarritutako dantza garai-kideko ikuskizuna eskainiko du, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Ondoren, *Aizkorak herrian* aizkolaritzari buruz

sortutako dokumentalaren emanaldia izanen da.

Kirolak kale ikuskizun batetik sortutako ikuskizuna da. Jendea interesatzen zitzaion gaia eta saio luzeagoa bihurtu zuen Aldazek. *Kirolak* eta dantzak kontzeptu asko komunean dituztela azaldu du etxarriarrak, dantzan erabiltzen dituztenak. Herri kiroletan erabiltzen diren elementuak, aizkora, harria edo soka, ikuskizunean gorputzak objektu horietan bihurtzen dira. Objektu batean bihurtzerakoan zer gertatzen den aztertu eta ikertu nahi zuten.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Intimidación telesaila Bilbon grabatu ondoren Altsasura itzuli da Aritz Leoz Crespo. Denbora tarte gutxirako izanen da, dagoeneko Paul Urkijo Alijoren *Irati* filmean lanean hasi delako. Aurretik *Maixabel* pelikulan ere parte hartu du altsasuarrak. Datorren ostegunean, ostiralean eta igandean, Iortia kultur gunean eskainiko dute filma. Leozek, ekipoaren parte bezala, aurrestreinaldian ikusteko aukera izan zuen. Zinemaren munduaz barrutik ikasten ari da.

Zein da zure lana?

Produkzio lanak dira, oro har. Grabazioan horiek dira nire eginkizunak: giza baliabideak, materialak, garraioak eta abar kontratatu eta antolatu, eta errodajea zehar kudeatu. Gehien bat logistika kontuetan ibiltzen naiz.

Nolakoa da zure lan egun bat?

Egun bakoitza gauza berriekin eta lan ezberdinekin hasten da. Egun normal bat zein izan daiteke? Ordu txikitik esnatzen naizen egun bat edo arratsalde bukaeran lanera sartzen naizen egun horietako bat. Normalean kamioian materiala set-era eraman eta antolatzen dut edo aktoreen zein taldeko kideren bat set-era eramaten dut. Errodajea hasi baino lehen prestatu beharreko guztiak martxan jarri. Hau da, bertan zerbitzatzen den katerinetik grabazio lekua antolatzera. Beste departamentuak etortzen direnerako dena prest egotea.

Nola antolatzen zarete?

Mundu hau nahiko hierarkikoa da. Nik arduradun gehiago ditut gainetik. Horiek dira errodajea hasi aurretik teknikak deitzen direnak egiten dituztenak. Momentu horretan erabakitzen dute zuzendariarekin, argazki zuzendariarekin eta beste departamentuekin zeintzuk diren beharrak. Teknika horietan zehazten dituzte, eta gu egunerokotasunean informazio horrekin antolatzen gara. Plana zehazten dugu. Egun bat lehenago bidaltzen dira behar zerranda horiek eta produkzio taldean banatzen dira. Handik bi egunetara ez dakigu zein izango den gure lana edo zer behar egongo diren.

Gidoia ezagutzen duzu?

Behartuta gaude gidoia irakurtzera eta ezagutzera. Errodajea hasi baino lehen gidoia pasatzen digute, baita grabazioaren plana ere, jakinda planak aldaketak jasan ditzakeela. Printzipioz, hori izango da lanaren eskema. Gidoia

"Grabazioan puzzle baten piezak osatzen ari gara"

ARITZ LEZ CRESPO ZINEMA EKOIZPEN TALDEKO KIDEA

Zinemaren munduan lanean ari da altsasuarrak. Besteak beste, 'Maixabel' pelikulan egin du lan



Aritz Leoz Crespo zinema ekoizpen taldetan ari da lanean.

ezagutzea ezinbestekoa da egun bakoitzean pelikularen zein zati grabatuko dugun jakiteko.

Nola hasi zinen zinemaren munduan?

Egia esan, *Altsasu* telesaila grabatzeratzen etorri zirenean ni Altsasukoak Aske plataforman ari nintzen niregana jo zuten kudeatzen laguntzeko. Bertan lan egitea eskainizidaten eta libre nengoen. Bertan lan eginda pertsona bat ezagutu nuen beste proiektu baterako deitu zidana eta hortik beste pertsona batek beste proiektu baterako. Gurpilean sartu nintzen.

Aurretik ikus-entzunezkoen zaletasunik edo harremanik ba al zeneukan?

Beti gustuko izan ditut ikus-entzunezkoak eta kuriositatez beraien inguruan informatu naiz. Asko gustatzen zait bai bideoak grabatzea, bai argazkigintza ere. Egian esan mundu honetan profesionalki ez nuen inolako formakuntzarik. Pixkanaka, egunerokoan, ikasten ari naiz. Gauza askotan bezala gogoia da gakoia, eta egunetik egunera banoa.

Zein proiektutan aritu zara?

Altsasu telesailetik *Maixabel* pelikulara, hortik *La Fortuna* Alejandro Amenabarren telesailera, Pasaian, eta hortik Netfli-

"GIDOIA EZAGUTZEA EZINBESTEKOA DA GRABATUKO DUGUN ZATIA AURRETIK EZAGUTZEKO"

xeko *Intimidación* telesailera, Bilbon. Horretan aritu naiz azken sei hilabetetan eta orain *Irati* pelikulan hasi naiz.

Nola izan zen 'Maixabel' bezalako produkzio batean lan egitea?

Bertara iritsi nintzen lehenengo egunean pentsatu nuen: "Zer egiten dut nik hemen! Hauek nahastu dira". ETBkoa dagoeneko profesionala zen, baina egia da *Maixabel* pelikularak beste dimentsio bat zuela. Lehenengo egunean ingurura begiratzen nuen, profesional guztiak ikusten nituen eta ni inolako formakuntza eta esperientzia izan gabe. Hori izan zen nire sentsazioa, baina sentsazio horretatik pizten zaizkizu ikasteko eta indarrarekin aurrera eramateko gogoak.

Gai zaila eta polemikoa lantzen du. Hasieratik baietz esan zenuen?

Onartu baino lehen ez dakizu nola landuko duten. Lana onartzen ez badut ez dut aukerarik gidoia irakurtzeko. Egia esan, hasieran gaiak nolabaiteko zirrara sortarazi zidan, baina profesionalki eta lan honetan aritzeko aukera ederra bezala ikusi nuen. Profesional asko batu dira, eta aukera bikaina zen bertan ikasteko eta bidea egiteko.

Pelikula horrelakoa izatea espero zenuen?

Istoria denok ezagutzen dugu. Edozein pelikuletan bezala detaile batzuk aldatzen dira, baina guztiok dakigu nor den Maixabel eta kontatuko dena zer den. Gure ikuspegitik, Euskal Herriko ikuspegitik, bai iruditzen zaidala elementu asko nahiko superzizialki jorratu dituztela, baina lan bikaina egin da, bai istorioarekin bai zinemako kontuekin.

Grabazioan egon ondoren, zinemaren magia galtzen da?

Errodajea zaudenean ez dizu aukera ematen nolako izango den jakiteko. Jarraitzen saiatzen zara, baina istorioa desestrutatzen da. Egun batean hasierako zatiak ikusten dituzu, eta hurrengoan, zerikusirik ez duten zatiak, eta handik hilabetera hasierakoekin harremana dutenak. Puzzle moduko bat da. Puzzleko piezak diseinatzen ari zarela sentitzen duzu. Pelikula ikustean puzzle horren osaketa ikusten duzu, baina zuk ez duzu muntatzen. Ez da imajinatzen nuen moduko, nahiz eta gidoia irakurri. Istoria sartzeko kostatzen zitzaidan, grabatutako zatiak ikustean badakizu trafikoa moztzen egon zinela, etxe horretako patioa ez dela etxe horrena... Grabazioaren kontuak etortzen zitzaizkidan.

11 GALDERA | BABESTUTAKO EDUKIA



Rubén Erviti Fernandez, Aluminios Erviti enpresako bazkidea. UTZITAKOIA

"Gidan agertzea oso positiboa da"

Guaixe Fundazioak duela sei urte Sakanako Gida komertziala aurkeztu zuenetik, Aluminios Erviti bertan agertzen da. Rubén Erviti Fernandez enpresako bazkideak publizitatearen garrantziaz hitz egiten du

Erkuden Ruiz Barroso
IRURTZUN

1 Non dago Aluminios Erviti?

Irurtzango Akaborro industriagunean, 13. zenbakian.

2 Zein da enpresaren historia? Zer egiten duzue?

1982. urtean sortutako aluminio arotzeria bat gara. Hasiera batean aluminiozko arotzeria egiten genuen bakarrik, baina merkaturaren garapenagatik garai berrietara egokitu gara eta orain aluminioa eta PVC-a lantzen dugu ere.

3 Zenbat jende egiten du lan?

Orain zortzi pertsona gaude.

4 Non egiten duzue lan? Sakanan bakarrik?

Nafarroa osotik mugitzen gara, baita Gipuzkoan lan egiten dugu ere.

5 Nola planteatzen duzue publizitatea?

Publiziterako aurrekontu bat dugu eta bazkideen artean zer egin erabakitzen dugu. Urtero Nafarroako iparraldean banatzeko egutegiak egiten ditugu, eta etxeetara bidaltzen ditugu. Hori urtero egiten dugu, zerbait finkoa da. Gero GUAIXEko Eraikuntza eta etxebizitza gehigarrian parte hartzen dugu. Hori ere urtero egiten dugu. Dirua sobran bada erabakitzen dugu publizitatean inbertsio gehiago egitea.

6 Egiten duzuen publizitatea eraginkorra da?

Nik uste baietz. Gidarena ez dugu egiaztatuta, baina Sakanan publizitatea egitea gustatzen zaigu. Egutegiak eraginkorrak direla egiaztatu dugu. Urtero 30.000 egutegi egiten ditugu eta etxe guztietara bidaltzen ditugu.

7 Astekaria, irratia, webgunea... Nola baloratzen duzue Guaixe Fundazioak eskaintzen duen publizitatea?

Esperientzia ona da. Horregatik urtero agertzen jarraitzen dugu.

8 Eraikuntza eta etxebizitza gehigarria gustatzen zaizu?

Ongi dago beti ez ditugulako Sakanan dauden enpresa guztiak ezagutzen. Batzuk txikiagoak gara, beste batzuk handiagoak... Galdetzen badizute zer enpresa ezagutzen dituzu Sakanan, lau edo bost handi datozkizu burura. Sukalde enpresa bat galdetzen badizute agian Salmen datorkizu burura, baina gehiago daude. Leihoengatik galdetzen badizute Erviti edo Egokin pentsatzen duzu. Ona da horregatik, gremio gehiago ezagutzeko aukera ematen duelako, eta eraginkorra da. Gainera, informazioa ere eskaintzen du; eraikuntzaren mundua

nola doan eta abar azaltzen da, eta informazioa eta publizitatea uztartzea oso ongi dago.

9 Guaixe Fundazioa zerbitzuak Sakanako Gida egiten hasi zenetik bertan agertzen zarete. Garrantzitsua da bertan egotea?

Garrantzitsua da urtero etxeetara iristen den gida bat delako, eta jendeak gorde dezake. Etxean beti egoten da erreforma txikiren bat egiteko beharra, eta horrelako gida bat etxean izatea ongi dator.

10 Sakandarrek etxean jasotzen dute doan. Nola baloratzen duzu produktua?

Oso positiboa da. Doanekoa izatea eta etxe guztietara iristea oso positiboa da. Azkenean, jende gehia-

gorengana iristea beti da ona; ezagutzera ematea eta publizitatearekin zerikusia duen guztia positiboa da. Jendea erraztasunak ematen dizkizozu, eta hori ona da.

11 Laster gida online martxan egongo da eta Euskal Herri osoan ikusgai egonen da. Nola ikusten duzue urrats hau?

Inoiz ez dator gaizki bertan egotea. Gu bezalako bertako enpresa batendako agian ez da hain deigarria, baina beste batzuentzako oso deigarria izan daiteke. Baina, esan bezala, hor egotea beti izango da ona; ez da gaizki etorriko. Seguruenik Eibarko batek ez dizkidala leihoak niri kontratatuko, baina nork daki. Behintzat ezagutzen gaituzte. Zerbait positiboa da.

ZURE OPARIAREKIN
AHO ZABALIK UTZIKO DITUZU

ZURE EGUTEGI
PERTSONALIZATUA
EGINGO DUGU

A UKERATU
ZURE KOLOREAK
ZURE ARGAZKIAK
ETA GUK
PRESTATUKO
DIZUGU!

Zureaz galdetu konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu